...eta Kitto!
2018-VI-22 1063 zkia.




# Zapia lepoan eta jaietarako prest!

EUKi
LAN, LEGE ETA ZERGA AHOLKULARITZA
www.euki.com
Tfnoa. 943 20 42 91
*Sanjuan zoriontsuak opa dizuegu!*



# CRF AMoSTEGi




* **ERREHABILITAZIOA**
  - Osakidetza - Aseguruak
* **FISIOTERAPIA PERTSONALIZATUA**
  Esku terapia - Osteopatia / INDIBAterapia (Radiofrekuentzia) /
  Txizaren inkontinentzia (emakumeak eta gizonak)
  E.P.I.: Azal-elektrolisi intratisularra / K-LASERterapia / Puntzio lehorra
* **HAURDUNEN OSASUNARENTZAT ETA ERDIONDORAKO DENETARIK**
  - Amatasunerako prestakuntza:
    Haptonomia eta Metodo tradizionala (taldeka/banakakoa)
  - Episiotomiaren prebentzioa, Txiza-inkontinentzia, Prolapsoak: EPI-NO + Masajea
  - Lunbalgien, Sakroilialgien, Coxigodinien... esku-tratamendua
  - Pelvis-zoruaren balorazioa erdiondoan
  - Tratamenduak txizaren inkontinentzia eta/edo inkontinentzia fekalerako, zesareen orbainentzat, episiotomiak, perineoko mina, etb.
  - Antzutasun funtzionalaren tratamendua
* **MEDIKUNTZA ESTETIKOA**
  - Zelulitisaren tratamendua kabitazio ultrasonikoaren eta elektrolipolisisaren bitartez
  - Eskuzko drainatze linfatikoa (DLM) eta/edo presoterapia
  - Elektrodrainatze linfatikoa eta baskularra (zainetako itzuleraren areagotzea)

Muzategi, 2 behea Tfnoa/Fax. 943 20 34 46 info@crf-amostegui.com www.crf-amostegui.com



# 10 urte
zure
entzumena
zaintzen

J. Etxeberria, 13 TEL: 943 700 230

R.P.S. 253/14

Beittu
Zentro Optikua




## Audifonoak

Probatu doan
Konpromiso barik

%50eko
deskontua
2. audifonoan

...eta kitto!
Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:** ...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:** Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:** erredakzioa@etakitto.eus komunikabideak@etakitto.eus publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:** elkartea@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:** Ana Aizpurua.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:** Maialen Belaustegi eta S. Hernandez.

**HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:** Maialen Belaustegi

**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.250 ale.

**INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.
**ISSN:** 1132 - 1679

*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

2015 Bikain

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria*

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

# eskutitzak

### – OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

### – Bixamona hilaren 27an, eguaztenean –

Datorren astean **Bixamona** Sanjuanetako argazkiak jasotzen dituen ale berezia kaleratuko dugu eguaztenean, **hilaren 27an**. Hurrengo ale "normala" **uztailaren 6an** izango duzue esku artean, eta horri jarraituko dioten beste birekin (uztailaren 13an eta 20an) amaituko dugu ikasturtea.

ERREDAKZIOA

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**MARAPILLO**.- Korapiloa. *"Marapillua egitten ez zekixan eta beti ibiltzen zan kordoiak solte".*
**MARATILLA**.- Txingeta, morroilua. *"Kortako atia maratilliakin dago".*
Zentzu figuratuan, denerako irtenbidea edo erantzuna. *"Haren miñak aterik haiña maratilla eukan".*
Torlojuak estutzeko nahiz askatzeko esku-erreminta. ***'Destornillador'.*** *"Torlojuak ondo lotzeko maratilla egokixa bihar izaten dok".*

## astean esanak

"Azpiegiturak herritik kanpo egiteak ez liguke beldurrik eman behar, Eibarren tributatuko dugulako. Dirulaguntzena beste pelikula bat da: gure mailako beste euskal hiru taldeek diru publikoa jasotzen dute euren estadioak berritzeko eta guk tribuna baten kostoaren %10 besterik ez genuen jaso Diputaziotik. Hor diskriminazioa dago eta horrek babesgabe lagatzen gaitu. Kudeaketa ona egitea zigortzen da eta gure lehiakidetasuna murrizten. Badakigu, eta onartzen dugu, talde bakoitzak dimentsio desberdina duela, baina joera horrek bidezkoa ez den lehian kokatzen gaitu"

(PATRICIA RODRIGUEZ, EIBAR FT-KO KUDEATZAILEA)

"Eskalatzaile batek ehuneko zenbat behar duen ahalmen fisikotik eta ehuneko zenbat buruaren ahalmenetik? Bi eratako kirolariak daude. Esaterako, 1999an Patxi Usobiaga 61. sailkatu zen Ingalaterran. Baina handik bost urtera Europako txapeldun izan zen, eta hamar urtera, munduko txapeldun. Adam Ondra, berriz, inoiz ez zen bosgarren postutik jaitsi. Hori da aldea eskalatzaile bikainen artean. Burua duen eskalatzaile batekin lan egin daiteke, baina talentua duen eta bururik ez duen batekin ezin daiteke. Ondrak talentua eta burua du; Usobiaga, berriz, eskalatzaile ona da, baina izugarrizko burua du. Frantzia, Alemania eta Austria dira gaur egun herrialde aurreratuenak eskaladan"

(GIANNI FAGGIANA, ESKALATZAILE/ENTRENATZAILEA)

"Populazioa zahartu egingo dela aurrikusi daiteke, baina kontuz ibili behar gara hori zenbatzerakoan, 2002tik hona izandako inmigrazio maila inork ez zuelako iragarri. Izan daitezkeen eboluzio guztiak hartu behar dira kontuan: kanpotarrei ateak ixten badizkiegu eta bakarrik arrazoi endogenoekin egiten badugu aurrera, hau da, jaiotako eta hildakoekin, hamarkada batzuetan 400.000 biztanle galduko genituzke Euskadin. Argi dago milioitik gora beharginei eutsi nahi badiegu etorkinen beharra izango dugula. Gaur egungo bilakaerari jarraituz gero, 2061erako bataz besteko adina asko igoko da gurean eta, adin nagusiko taldeak gaur 70.000 lagun baditu, orduan 250.000 izan ditzake"

(ENRIQUE MORAN, EUSTAT-EKO SOZIOLOGOA)



## EKAINAK 22, BARIXAKUA

**17:15ean,** Ego Gain Gerontologiko Zentroan, **Eibarko kantuzaleak** taldearen emanaldia.

**18:15ean,** Astelena frontoian, **San Juan pilota txapelketa**. Pilota eskolen partiduak, seniorren 4 ½ -ko eta binakako partidak. Antolatzailea: Eibarko Klub Deportiboa.

**22:00etan**, Untzaga Plazan, **Sostoa Abesbatza**, **Trio Medianoche** eta **Eibarko Koro Gaztea** taldeen kontzertua.

**23:30ean,** Untzaga Plazan, **Zea Mays** taldearen kontzertua.



## EKAINAK 23, ZAPATUA

**08:00etan,** **enbolatuak** Sakaren eskutik Untzaga plazan.

**10:30ean**, Ospitalean, **Santuari zapia jarriko** zaio.

**11:00etan,** Untzagan hasita, **Sanjuanetako Zortzikoa**, Usartza Txistulari Bandaren eskutik eta musikarien laguntzaz.

**12:00etan,** Untzagan, **koadrilak** bildu, eta Ustekabe fanfarrearekin **kalejira** Urkizuraino. GASTE Elkarteak antolatuta.



**13:00etan,** Estaziño kalean, **ongietorria Lizarrako Dultzaineroei**, eta kalejira Untzaga plazaraino *Udalbatzak*, *Odei Jainaga* eta *Pello Osoro* kirolariak, Urki kirol taldeko *Jesús Alzagak*, *... eta kitto! Euskara Elkarteak*, *Bakailauaren Kofradixiak* eta *koadrilek* lagunduta.






info@gerritek.net
www.gerritek.net

SOLUZIO INFORMATIKOAK

Marka guztietako zerbitzu teknikoa eta salmenta

Neurrira egindako software-aren garapena

Gerritek
INFORMATIKA

Txaltxa-Zelai, 4-6 Tel: 943-033892

AMAÑA
FONTANERIA

- Kalefakzio Instalazioak
- Sukaldeak eta Bainuak
- Galdara eta Berogailuen Instalazioak
- Butano, Propano eta Gas Naturalaren Instalazioak
- Azterketa eta Proiektuak Ordenadorez
- Aire egokitua

T. Anitua 12
Telefonoa. 943 201 930
fonta.amana@gmail.com





Eibarko dantza garaikidea

**13:30ean,** Udaletxetik, **pregoia** eta jaiei hasiera emateko **txupinazoa**.

**13:45ean,** Udaletxean, Sanjuanetako **kartel lehiaketa** eta alkohol gehiegikeriaren kontrako **pegatina lehiaketen sari banaketa.**

**17:30etik 20:30era,** Urkizun, **umeentzako puzgarriak**.

**17:00etatik 21:00etara** Untzagan **klarionez taillera**: Sanjuanetako munduko kartel haundiena, Lekim Animazioen eskutik.

**17:30ean,** Untzagan, **koadrilak** bildu eta **kalejira** fanfarrearekin zezen plazaraino.

**18:00etan,** zezen plazan, **koadrilen arteko jokoak**.

**19:00etan,** Urkizutik, Lizarrako **erraldoi** eta **buruhandien kalejira** Lizarrako Dultzaineroen laguntzarekin.

**19:00etan,** Untzagatik, **Irulitxa** fanfarrearekin **kalejira**.

**19:00etan,** San Andres elizan, **Salbea** Parrokiako abesbatzarekin.



**19:00etan,** Ego Gain, Untzaga, Calbeton, Zuloagatarren eta Toribio Etxebarria kaleetatik, "Sardina Bakalau" **kale antzerkia Anita Maravillas konpaniarekin**.

**23:00etatik 04:00etara,** Untzaga plazan, **berbena Lisker** taldearekin.

**23:30ean,** Untzagan, **San Juan Sua** eta **Eibarko Dantza Garaikide** taldearen emanaldia, …eta kitto! elkartearen eskutik, eta Queimada, As Burgas Casa Cultural de Galiciaren ardurapean.



**00:00etan,** Untzagan **San Juan Kantua** eta jarraian **Danborradaren Alardea**.

**00:00etatik 03:30era,** Untzaga Plazan, Alkoholaren gehiegizko erabileraren aurkako **prebentzioko karpa SASOIAren eskutik**.


trinmer
1988 - 2018
30 aniversario urteurrena

*Telekomunikazio Instalaziorako Enpresa*
*-*
*1.305 zkia.*

TB seinalea jasotzeko antena-instalazio profesionalak
Satelite bidezko TB / TB digitala
Teledistribuzioak
Konponketak eta mantenimendua

tdtrinmer
www.trinmer.com
EGOGAIN S/N. TEL. 943127350 FAX 943207380 20600 EIBAR

**www.trinmer.com**

**Ego-Gain, 2 Bac • Tel: 943 127 350**



Funeraria·Ehorztetxe
Mugica

EIBAR



ELGOIBAR



**Beilatokia Funeuskadi Eibar:**
Otaola, 27

**Beilatokia:**
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

**Bulegoa Eibarko erdialdean**



**24 orduko zerbitzu iraunkorra**
**943 20 19 51** www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea
GRUPO Funeuskadi



## EKAINAK 24, DOMEKA

**08:00etan, enbolatuak** Sakaren eskutik Untzaga plazan.

**08:30ean, kalejira** Lizarrako Dultzaineroekin.

**11:00etan,** Arraten, **Euskadiko helize tiro txapelketa.** Antolatzailea: Sociedad de Tiro al Vuelo.





**11:00etatik 14:00etara** eta **18:00etatik 20:00etara,** Untzaga Plazan, **“Koloreak munstroak” jolas parkea** Tombs Creatius antzerki taldearen eskutik.

**12:00etan,** San Andres parrokian, **meza kantatua** Parrokiako abesbatzarekin.

**12:45ean,** Untzaga Plazan, **Ertzantzako Musika Bandaren San Juan Kontzertua.**

**17:00etan,** Astelena frontoian, **Pilota jaialdia.**

**18:00etan,** Untzaga plazan, **“San Juan city secrets”**. Herrian zehar burutuko den **makro-ginkana** jokoa kuadrillentzat Itzamnaren eskutik.

**18:30ean,** Urkizutik, **kale antzerkia. “JAIxotasunak”** Lekim animazioen eskutik.

**18:30ean,** Untzaga Plazan, “**Babo Royal” ikuskisuna Ganso & Cía** taldearen eskutik.

GURIA
ELECTRICIDAD
MUNTAIA ETA PROIEKTU ELEKTRIKOAK
Matxaria, 2 - Pabellón 7 • Telf. : 943 70 08 95 • Fax: 943 82 00 27
www.electricidadguria.com • 20600 EIBAR (Gipuzkoa)

Arregi - Dominguez
ARRAINDEGIA
Bidebarrieta, 4
943 20 11 38
Ego-Gain, 9
943 20 32 09
Ondo pasa
Sanjuanetan
Mariskoak
Arrain freskoa eta izoztua
Enkarguak hartzen ditugu
Ondarruko arraina





Jainaga eta Narbaiza



Jamaica Show

**19:00etan,** Urkizun, **Umeen Danborradaren irteera**, Ustekabe fanfarrearekin.

**19:30ean,** Untzagatik, Siziliatik etorritako **Tinto Brass Banda**ren kalejira.

**20:30ean,** Untzagan, **umeen pregoia** Umeen Danborradako Danbor Nagusiak irakurrita, eta Alardea.

**22:00etan, Erromerixa** Untzaga plazan, Jainaga eta Narbaizaren eskutik.

**23:30ean, Soka Dantza** Untzaga plazan, Usartza Txistulari Banda eta Kezka Dantza Taldearekin.

**00:00etan, suzko erroberak** Caballer Fx Pirotecniaren eskutik.

**00:15etik 03:00etara,** Untzaga Plazan, **berbena Jamaica Show** orkestrarekin.



www.kolorlan.com 667 54 89 16
KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L

CCOO
euskadiko langile komisioak
www.ccoo-euskadi.net
Mugitu zaitez!
MURRIZKETA SOZIALEI EZ!!!
Ifar kale, 1 Tel. eta faxa. 943 20 84 35 eibar@euskadi.ccoo.es

BOLINTXO
OKINTEGIA
GOZOTEGIA
Eguneroko ogia
943 20 40 66 (Errebal) 943 20 36 06 (Legarre)

Mail
Herramientas Especiales de Corte
Apalategi, 4 - 20600 EIBAR • Tel: +34 943 70 70 50
e-maila: mail@industriasmail.com • www.industriasmail.com



## EKAINAK 25, ASTELEHENA

**08:30ean, kalejira** Lizarrako Dultzaineroekin eta goiz-erestia.

**11:30ean, San Juan XXV. marmitako lehiaketa**, Untzaga plazan.

**12:30ean,** Untzagan, **Euskal Jaialdia,… eta kitto!** Euskara Elkarteak antolatua.

**18:00etatik 21:00etara,** Untzaga Plazan, **"Ezinen feria" jolas parke**a Civic Civiac antzerki taldearen eskutik.









**18:00etan,** Urkizutik, Bilboko Ondalan konpartsarekin **erraldoi eta buruhandien kalejira** Lizarrako Dultzaineroen laguntzarekin.

**18:00etan,** Untzagatik, **kalejira Africa Baj Yay** taldearekin.

**19:30ean,** Toribio Etxebarria kalean, **kale-antzerkia. Zanguango** taldeak Flux aurkezten du.

**19:30ean,** Untzagan, **kontzertu-dantzaldia** Eibarko **Cielito Musika Bandar**en eskutik.

**20:30ean,** Untzagatik **Imperial Elegancia Mejicana mariachiaren kalejira.**

**20:30ean,** Untzagan, **A Santo de Qué** taldearen **kontzertua.**

**22:00etan,** Untzagan **Imperial Elegancia Mejicana mariachiaren emanaldia.**

**23:00etan, suzko erroberak** Pirotecnia Valecearen eskutik.






# IRAZABAL

## clínica dental





**Ainhoa Zulueta**
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian, Periodontzian, inplantologian.
**Leongo Unibertsitatea.**
Diplomatua Aho Kirurgian.
**Bartzelonako Unibertsitatea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua.
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua.
**Autran Institutoa. Bartzelona.**
Etengabeko Formakuntza.
**New York-eko Unibertsitatea.**
Oklusioan Graduondoa.
**Aníbal Alonso Doktorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**
**8:00**etatik **22:00**etara
**Zapatuetan:**
**10:00**etatik **14:00**etara

# Familiaren Osasuna

## Zure familiaren ahoaren osasunaz arduratzen garelako

**Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu**

**Facebook**en: Clínica Dental Irazabal  Eta **twitter**en: @ClinicaIrazabal







**FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. GALDETU**

IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**



## EKAINAK 27, EGUAZTENA

**16:30ean,** Karmen kaleko parkean, **umeendako txokolate-jana.**

**17:00etan,** Karmen kaleko parkean, **umeendako jokuak**.

**19:00etan,** Karmen kaleko parkean, **Gorriti eta bere abereak.** Antolatzailea: Beheko Tokia.

## EKAINAK 28, EGUENA

**12:00etan,** Karmen kaleko parkean, **toka eta igela txapelketa.**

**18:00etan,** Karmen kaleko parkean, **Trio Medianoche** taldearen emanaldia.

**19:00etan, "Cuadros de amor y humor al fresco"** , Ernesto Barrutia eta Isabel Gonzalez La Novena taldearen eskutik.



**20:00etan,** Karmen kaleko parkean, **Kaleetan Kantuz** taldearen emanaldia.

**21:00etan,** Beheko Tokian, Kaleetan kantuz taldeari **ongietorria** eta **piskolabisa**.

**21:30ean,** Karmen kaleko parkean, **dantzaldia Tukan taldearekin**. Antolatzailea: Beheko Tokia.



## EKAINAK 29, BARIXAKUA

**12:00etan,** Carmen Parrokian meza, **Gospel Bilbao** ahots taldearekin.

**13:20ean,** Karmen kaleko parkean, **toka eta igel-toka txapelketa**ren sari banaketa eta piskolabisa. Antolatzailea: Beheko Tokia.

## EKAINAK 30, ZAPATUA

**16:30ean, Eibarko Hiria XXXIV. xake partida azkarren txapelketa.** Jose Mari Kruzetaren oroimenez. Untzagan. Antolatzailea: Eibarko Klub Deportiboa.


Laguntza Teknikorako Zerbitzu Ofiziala
EIBARSAT
Etxetresna elektriko txikien eta mikrouhinen konponketa, musika kateak, sukaldeko menajea, tresneria txikien piezak...
IFAR KALE 8
Tel./Faxa. 943 20 67 17
20600 EIBAR

San Andres Gozotegia
• tartak
• enkarguak etxera
Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Urkizu, 18 943 120194
MUGIKA HARATEGIA
San Juan zoriontsuak



Azido hialuronikoko ile-tratamendu berriak
Khôl Estilistak
Estaziño, 4 943 254776

# Ondo pasa Sanjuanetan!!














TXOKO

*Giro alaia Sanjuanetan!*

UNTZAGA PLAZA, 10
20600 EIBAR








# Txosnagunea







**Ekainak 22, barixakua**
19:00: Eibarko Batukada Feminista.
22:00: Kontzeruak: Eirband, DJ Marivel eta Gatz.

**Ekainak 23, zapatua (Gazte Eguna)**
11:30-12:45: Kamiseta-banaketa.
13:00: Dultzaineroei harrera/trikipoteoa.
15:00: Bazkaria Bizimina-ren eskutik, Untzagan.
18:30: KAMIOIA: Esne Beltza Sound Sistem (DZ eta Xabi Solano). Ondoren, San Juan sua.
22:30: Kontzertuak (Tacumah Reggae, Roba Estesa, Gora Etorri).

**Ekainak 24, domeka (Mozorro Eguna)**
14:30: Presoen aldeko bazkaria. Ondoren, Imanol Ituiño Magoa.
19:00: Kontzertua: Mice.
23:30: Kontzertuak: Revolta Permanent, Ira, Chocolate Remix.
06:30: TXOSKARRAK eta gero makarronada.
08:00: Elektrotxaranga: Eonian.

**Ekainak 25, astelehena**
18:30: Merendola Herrikoia.







EL TIO PALANCAS
• MAHAI GOZOAK EZKONTZETARAKO
• URTEBETETZE ETA EZKONTZETARAKO POLTSAK
• TXUTXEEKIN EGINDAKO TARTA PERTSONALIZATUAK, BROTXETAK...
Egunero zabalik
JUAN GISASOLA, 8
665 70 20 82

943 201213
602 451225
IbaiOndo inmobiliaria
Bidebarrieta 24, baxua
ZURE INMOBILIARIA
Operazioa gurekin itxi ezkero etxe eta lokalen erreformetan deskontu ikusgarriak.
INTERIORISTA: Nagore Goikoetxea
(mokka interiorismoa)
www.inmoibaiondo.com
ibaiondo@inmoibaiondo.com




IÑAKI REZOLA
HARATEGIA
San Juan zoriontsuak!
Errebal, 23 – Tel. 943 201 729



Donostia, Basauri eta Eibarko 9-10 lagunek osatzen dute Eonian elektrotxaranga, eta **Julen Mendicute** taldekide eibartarrarekin egon gara. Azken hilabeteotan sarritan ikusi ditugu Eibarko kaleetan eta Sanjuanetan ere eurekin dantza egiteko aukera izango dugu. Goiz gainera, San Juan Txiki egunean goizeko 08:00etan hasiko delako euren kontzertua txosnetan.

# EONIAN elektrotxaranga: "Goizeko 8etan beste giro bat sortzen da"

**- 08:00etan joko duzue. Ordu ona kontzertua jotzeko?**
Aurreko urtean ere ordu horretan jo genuen eta ufff! Gaupasa eginda joan eta hor ibili ginen, baina gustora. Goizeko 8etan beste giro bat sortzen da. Jendeak etxerako bidea hartzen duenean, elektrotxaranga bat-batean. Aurten, gainera, enbolatuak daude eta alternatiba bat eskainiko dugu.

**- Aurten ere gaupasa eginda joango zarete?**
Ni behintzat ez! Gainera arratsaldean Arrasaten kontzertua daukagu eta ondo lo egitea komeni zaigu.

**- Jai giroan ibiltzeak kontzertu atseginak emateko laguntzen du?**
Lehenengo gauza golfo kuadrila garela da eta, gero, musika jotzen dugu (barreak).

**- Hain goiz izanda, saio berezia eskainiko duzue?**
Ez, betiko errepertorioa eskainiko dugu. Udara begira kantu berriak prestatzen ari gara, baina ez da saio berezia izango.

**- Nolako errepertorioa izango da?**
Bertsioak egiten ditugu batez ere. Skalariak, Piperrak eta horrelako taldeen abestiak jotzen ditugu. Hau da, ska, rock, rap eta punk doinuak.



**- Txosnetan egongo zarete edo kalejiran irtengo zarete?**
Txosnetan hasiko gara eta bueltatxo bat emango dugu gero, bizilagunak pixka bat molestatzeko (barreak).

**- Urez betetako baldeak erortzeko arriskuarekin?**
Iaz bizilagunen bat kexatu zen, baina astelehena izanda jendea lanera joango da edo jai eguna badaukate, izango dute atsedena hartzeko aukera.









## LEKIM



**Klariona tailerra** - Sanjuanei buruzko munduko kartel handiena

**Ekainak 23, zapatua 17:00-21:00, Untzagan**



**'JAIxotasunak'**
Gaixo arriskutsu batek Eibarko kaleetatik ihes egin du eta jendearen artean nahasten da. Hiru erizain oso berezi haren bila irtengo dira.

**Ekainak 24, domeka 18:30, Urkizutik kalejira**

## ANITA MARAVILLAS 'Sardina Bakalau'

**Ekainak 23, zapatua 19:00, erdigunetik kalejira**

Hiru amona arrantzalek eguneroko lanean atseden hartuko dute euren alaitasunarekin kaleak animatzeko, eta trikitia eta panderoaren laguntza izango dute horretarako.



## TOMBUS CREATIUS 'Munstro koloreak'



Kutsu artistikoa duten jolasekin ondo pasatzeko aukera izango dute umeek. Jolasek giro bizi eta adierazgarria emango diote plazari eta, era berean, multzo artistiko bat osatuko dute.

**Ekainak 24, domeka 11:00-14:00, 18:00-20:00, Untzagan**

## GANSO & CIA 'Babo Royal'

**Ekainak 24, domeka 18:30, Untzagan**

Hierarkiak trukatu, egunerokotasunak harritu, eta normaltasuna eta zentzutasuna debekatzen dituen jolasa da Babo Royal.



## CIVI CIVIAC 'Ezinen feria'




Parte hartzeko jokoen proposamen bat da. Ikusleek mundu magiko batez gozatuko dute, baina bertan ezer ez da benetan ematen duena.

**Ekainak 25, astelehena 18:00-21:00, Untzagan**

## ZANGUANGO 'Flux'



Publikoarekin jolastu eta elkar eragiteko gonbidapena da Flux, batak besteari begietara begiratuz kalea komunikaziorako eta gozamenerako espazioa bilakatzeko.

**Ekainak 25, astelehena 19:30, Toribio Etxebarrian**

---

KIÑU
BURDINDEGIA
San Juan, 17-19 Telf. 943 200 492 - 943 700 926

ELEKTRIZITATEA
urki s.a.
INSTALAZIOAK
BOBINATUAK
TRANSFORMADOREAK
Arragueta zeharbidea, 1
Tel. 943 12 05 95 / 72
Faxa. 943 20 38 53
transfab@electricidadurki.com

CORREDURIA COSTAMAR

| | | |
|---|---|---|
| AUTOAK | ISTRIPUAK | KARNET KENTZEA |
| ETXEA | DENDA | ASISTENTZIA BIDAIAN |
| EHIZA | ENPRESA | E.P.S.V. PENTSIOAK |
| BIZITZA | AUTONOMOA | INBERTSIOAK |
| OSASUNA | AURREZPENA | BABES JURIDIKOA |
| HILETAK | ERANTZ. ZIBILA | KREDITUA ETA BERMEA |

Urkizu Pasealekua, 11 - Solairuartea - 20600 - EIBAR
Tel: 943-120437 / Faxa: 943-127180 DFGV zkia: MS-224
www.correduriacostamar.com costamar@correduriacostamar.com

astixa
Zezenbide 7, Eibar 20600 Gipuzkoa tlf.943206231

# Kultu

Zuloagatarren, 3
Tel. 943 20 84 39









# ZENTRAL OPTIKA

*Ego Gain, 2*
*tel/fax 943 70 14 08*




ZUREKIN HAZTEN
EGUNETIK EGUNERA

Deskontu bereziak!!










Eskerrik asko eta ondo pasa Sanjuanak!



# Sua, San Juan jaien motorra

San Juan suaren garra da jai hauen oinarria. ...eta kitto! Euskara Elkarteak orain dela 25 urte berreskuratu zuen ohitura hau eta suak bizirik jarraitzen du ordutik. Asko dira urte hauetan sua piztu duten omenduak eta are gehiago suaren garren gainetik salto egin dutenak. Izpiritu txarrak uxatu edo bizitzari esker onak emateko, San Juan suak esanahi pertsonala dauka eibartar bakoitzarentzat.



Ipuruako Dantza Taldearen ikuskizunaren ostean piztuko dute sua aurtengo omenduek, 23:30ak inguruan. Aurtengo Sanjuanetan Udalak omenduko dituen Odei Jainaga, Pello Osoro, Jesus Alzaga (Urki FT), Eibar Eskubaloia eta Bakailaoaren Kofradiaz gain (hurrengo orrialdean daukazue informazio gehiago), ...eta kitto! Euskara Elkarteak Amañako Jai Batzordea eta Ignazio Zuloaga Institutua omendu nahi izan ditu San Juan suan. Izan ere, Amañako Jai Batzordeak 40 urte bete ditu aurten eta urtero jaiak antolatzen ibiltzen den Joxean Alberdi 'Gomak' sua piztuko du. Institutuak, bestetik, 50 urte bete ditu aurten, eta mende erdi honetan azterketa eta apunte ugari kiskali dituen sua ixotu ahal izango dute Institutukoek.

Eibarko Lambretta Klubeko kideek ere sua pizteko aukera izango dute aurten. Izan ere, Ipurua Dantza Taldekoen ikuskizunaren inspirazio eta protagonistak izango dira Lambrettak, eta dantza emanaldirako eskainitako laguntza guztia eskertu nahi zaie modu honetan.

GAUR
ELEKTRIZITATEA
INSTALAZIO ETA KONPONKETA ELEKTRIKOAK
ATEZAIN AUTOMATIKOAK ETA BIDEO-ATEZAINAK
Zuloagatarren 9, behea — Telefonoa 943 20 62 40
carmen@egaur.com — Faxa 943 05 69 23

Catalana Occidente
Seguros
ERANTZUKIZUN ZIBILA / AUTOAK
BIZITZA ETA JUBILAZIOA / OSASUN
ASEGURUA / ISTRIPU BANAKAKO ETA
KOLEKTIBOAK / ARRISKU ANITZAK




EMILIO DE LOS TOYOS
Erreg. zkia. C046815351532K
Eibarko Txikito, 8
943 200 908 / 610 422 179
emilio.toyos@agentes.catalanaoccidente.com

Oinetakoak
Tribeka
Zuloagatarren, 7
Tfnoa. 943 20 62 24

ketesa
BULEGO MATERIALA
Altzariak Aulkiak Manparak
Estaziño, 12 Tel. 943 12 19 73
info@ketesa.com www.ketesa.com

San Juan bezperan, 13:00etan, Estaziño kalean jartzen du begia eibartar orok. Urtero Lizarratik datozen Dultzaineroek Sanjuanetako zapia jantzi eta jaietako lehen dultzaina doinuak jotzen dituzte, festarako gogo biziz dauden eibartarrak Untzagaraino gidatuz. Dultzaineroak baino pixka bat atzerago herriak jaietan omendu nahi dituen pertsona eta taldeak joan ohi dira, eta aurten Odei Jainaga eta Pello Osoro kirolariek, Urki Kirol Taldeko Jesus Alzagak, Bakailaoaren Kofradiak eta …eta kitto! Euskara Elkarteak jasoko dute herrikideen esker ona.



# Jaiak baino gehiago ospatzen

Gazteak dira Odei Jainaga eta Pello Osoro, baina orainaldi eta etorkizun handiko kirolariak direla erakutsi dute honezkero. Jainagak jabalina jaurtiketako Espainiako errekor absolutua lortu zuen otsailean 80,64 metroko markarekin. Atleta eibartarrak denboraldi honetan 80 metrotik pasatzeko helburua zuela adierazi zigun urtarrilean eta hilabete geroago marka handiak lortzeko gai dela erakutsi zuen.
Osorok, bere aldetik, garaipen ugari lortu ditu triatloiean, negukoan zein ohiko triatloian, baina Jainagak bezala otsailean egin zuen handiena, Huescako Ansó herrian jokatutako Espainiako Neguko Triatloi Txapelketa eskuratu baitzuen eibartarrak (bere anaia Txominek 23 urtez azpikoetan irabazi zuen).
Kirolarekin jarraituz, baina bulego eta zelaitik kanpo kasu honetan, Jesus Alzagak lan handia egin du Urki Kirol Taldean hainbat urtetan zehar eta merezitako omenaldia jasoko du Sanjuanetan. Alzagak 36 urte egin ditu Urkiko presidente moduan, eibartar askori foballean jarduteko aukera eskainiz.
Bakailaoaren Kofradia 1993an sortu zen bakailaoaren kontsumoa sustatu eta bakailaoa prestatzeko moduak ezagutarazteko. Lehen bakailao lehiaketa 1973. urteko Sanandresetan egin bazen ere, 25 urte hauetan berebiziko lana egin du Kofradiak itsasoko produktu honek gure herrian duen garrantzia bultzatzen.
Gu geu ere zorioneko gaude. …eta kitto! Euskara Elkarteak 25 urte bete ditu eta gure jarduna posible egiten duzuenoi eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen. Orain beste 25 urteren bila goaz, Eibarren euskararen alde asko dugulako egiteko oraindik eta gogoz ekingo diogu bideari.


Pello Osoro


Odei Jainaga

EUSKO LABEL
Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada
Bidebarrieta 20
Tlfno: 943 20 16 69
oberenaharategia
OBERENA HARATEGIA

Larragest
API 353 zbk.
INMOBILIARIA / ASEGURUAK
F. Calbetón, 22-24
943 200 012
690 610 715



# Danborrada, Sanjuanetako soinu ofiziala

**San Juan sua itzali eta San Juan kantua abestu eta gero, gaueko burrunbada hasiko da.** Bederatzi hamarkadako ohiturari jarraituz, konpainia bakoitzak bere tokia hartuko du Marruko kainoiak eztanda egin eta gero danbor gogor eta pasio handiarekin jotzeko. 300 lagunek jantziko dituzte euren konpainien kolore eta ikurrak, eta herriko kaleak danbor hotsekin girotuko dituzte San Juan egunari hasiera zalapartatsua emateko.

Juan Luis Baglieto 'Manli' izango da helduen danborradako Danbor Nagusia eta bere agindupean joko dute danbor-joleek. Gero, Iker Teruelo izango da Gastadoreen kaboa, Juan Mari Lejardi 'Pastor' Danborren kaboa, Bea Zabaleta izango da Banderaduna eta Eugenio Camara aurtengo Napoleon. Eibarko Cielito Musika Bandak musikaz girotuko du danbor hotsek markatzen duten erritmoa, eta Eibarko Eskubaloi Taldekoak joango dira Margo eta Marrazki Eskolak eta Leire Kareagak sortu duten karroza gainean.





Hurrengo egunean, San Juan egunean, umeek hartuko dute helduen lekukoa eta 19:00etan haurren danborrada hasiko dute Urkizutik Ustekabe fanfarreak lagunduta. Eibarko ikastetxeetako 300 haur inguru ibiliko dira danbor gogo handiz jotzen eta guztien artean Aldatzeko Eider Romero izango da nagusi, bera izango delako Danbor Nagusia, eta berarekin egongo dira bere ikaskide Paula Gil eta Amanda Reyes Banderadunak eta Andoni Villafaña aurtengo Napoleon. Gero, ikastetxe bakoitzak bere zuzendaria edukiko du. Urkizukoa, adibidez, Yasmina Benslaiman izango da, La Sallekoa Larraitz Fernandez, San Andresekoa Elene Arrazola eta Juan Antonio Mogel ikastolakoa Olatz Vicuña.

Karroza gainean, bestetik, Markel Diaz, Ekain Alonso, Nahia Andre, Olatz Plazaola, Beñat Castillo, Irati Andrade, Miren Badiola, Claudia Schmidt, Martin Rodriguez, Malen Sanchez, Xaban Fernandes, Ane Saenz, Katrin Alcelay eta June Paguey egongo dira.

PODOLOGOA
Maider Lopez Etxeberria
65 Kolegiatu zbkia.
Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

Rivero
Isasi, 18 - behea
696 564 813
943 033 649
Oinetakoen konponketa

PINTURAS ARRATE, S.L.
• Nexa Autocolor
• Pintura industriala
• 3M produktuen banatzailea
MATSARIA, 34 behea - A
info@pinturasarrate.com
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

Juan Gisasola, 14
Tfnoa. 943 20 39 02 benicobacenor@gmail.com
BENICOBA
Etxeko tresnak
cenor
Sukaldeko altzariak
BEHAR DUZUNA LORTZEN LAGUNTZEN DIZUGU
Zorionak!

# Ondo pasa Sanjuanetan!!

GURE LEKU
Isasi, 3
20600 EIBAR
☎ 943 20 71 89

MARTXA eta juerga giro onean
bar aldatz
645 65 13 09
ONDO PASAU Sanjuanak
San Juan, 3



lanegunetan 06:00etatik asteburuetan 08:00etatik
Eguneko menua, Menu bereziak, Gosariak, Plater konbinatuak, Razioak, Bokatak, Hanburgesak, Pintxoak...

telepizza.es
Oinarrizkoa masa da
San Juan, 15
943208989

Goizeko 07.30etatik zabalik
ondo pasa Sanjuanak eta Sanpedroak!!!
bar manuel
(JUANITO)
Urkizu, 5
943 12 16 57

eibar EZDOK ROCK
HEMENGO ETA HANGO GARAGARDO ARTISAUAK.
MUSIKA ETA GIRO JATORRA
BREWDOG POINT
Toribio Etxebarria 18, Eibar

Beleko
Bista Eder 2

jaietan bikain pasatzeko

hirurok
TABERNA
– Ogitartekoak
– Plater konbinatuak
Errekatxu, 1
Tel. 943 56 72 06



Musika zoriona da, alaitasuna, batez ere jaietan. Dantza, salto, barre eta, zergatik ez, emozioz negar egiteko aukera eskainiko dute Sanjuanetan gurera etorriko diren musikariek, jaietan denetarako tartea dagoelako. Musika mota bat edo beste entzuteko aukera ere, nahi beste. Gaur bertan hasi eta astelehenera arte, mila doinu entzungo ditugu herrian, musika gabe jairik ez dagoelako.

# Jaiei erritmoa jartzen

**Gau handia daukagu aurretik gaur.** Lehendabizi, 22:00etan hasita, herriko musikarien hainbat belaunaldik ETBk grabatuko duen kontzertu berezia eskainiko dute Untzagan. *Sostoa Abesbatzak* eta *Eibar Koro Taldeak Trio Medianoche* taldearekin abestuko dute, gure artean hain ezagunak diren doinu latinoamerikarrei ukitu berezia emateko gogoz. Aurkezle lanetan ere aurpegi ezagun bat izango dugu, Ibon Uzkudun eibartarrak gidatuko duelako saioa.

Musikari eibartarrek eskainiko duten kontzertu bereziaren ostean, Sanjuanetako kontzertu nagusiaren txanda iritsiko da (gainerako taldeak gutxietsi gabe). 21 urte bete berri dituen *Zea Mays* taldeak euskal rockaren doinurik ezagunenak ekarriko dizkigu Untzagara 23:30ean, hainbat alditan Eibarren eskaini izan duten ikuskizun handia berriz emateko prest. Aiora Renteriaren ahots indartsua San Juan sua pizteko prest dago.

Gaurko gaua handia izango da, baina bihar da San Juan bezpera. Jaiak hasi besterik ez dira egin! Bihar, zapatua, goiz eta eguerdiko urduritasun eta alaitasuna pasata atseden pixka bat hartu eta gero, *Irulitxa fanfarreak* kalejira eskainiko du Untzagatik 19:00etan. Gauean, mitoen txanda. *Lisker* taldeak han eta hemengo, atzo eta gaur egungo abestiak joko ditu 23:00etatik 04:00etara Untzagan bilduko den jendearentzat. Musika gabe ez dago Sanjuanik, baina are zailagoa da Lisker gabe San Juan jai batzuk imajinatzea.

## Lasai hasi, dantzan amaitu

San Juan eguneko goiza lasaia izan ohi da herrian. Gaueko pozak eta festarako grinak atsedena hartzen dute, baina eguerdi partean hasten da giroa berpizten. 12:45ean *Ertzantzako Musika Bandak* San Juan Kontzertua eskainiko du, egunari lehen musika doinuak emanez.

Goiz lasaia eta arratsalde zalapartatsua.



Afrika Baj



Cielito Musika Banda



Imperial Elegancia

Laukolan
SOLUCIONES INFORMATICAS
Tel. 943 120 350 Faxa. 943 127 087
Urkizu Pasealekua, 10 (20600 EIBAR)

JAI ZORIONTSUAK!
Ileapaindegia
Dolce Vita
Estetika
Birjiñape, 1
943-201853

Zabala Comercial
OSTALARITZA ARTIKULUEN SALMENTA ETA MUNTAIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA KONPONKETA
Jose Antonio Gisasola, 6 - ac
Tel/Fax. 943 20 88 57
comercialzabala@outlook.com

San Juan jai zoriontsuak!
CBL
Cristina Baz Larrañaga
ABOKATUA
Errebal 9, 1 D
www.cristinabaz.com
943 12 80 55 - 630 64 21 75
cristinabaz@icagi.net





Tito Brass Band


Lisker

Estereotipoetan erortzen bagara, herrialde zalapartatsu bat imajinatzen dugunean Italia etortzen zaigu burura (herrialde isila ez da behintzat). Bada Siziliatik etorriko zaigu San Juan egunean 19:30etik aurrera herriko kaleak girotuko dituen taldea, *Tinto Brass Street Band*. Zornotzan egiten den Haizetara nazioarteko jaialdian hartuko du parte talde siziliarrak eta, bide batez, Eibartik pasatuko dira.

Gauean, Euskal Herriko musika tradizionala eta irrati kateetako zerrenden goian dauden abesti arrakastatsuak entzuteko aukera egongo da Untzagan. 22:00etan ***Jainaga eta Narbaizak*** erromeria eskainiko dute eta, 00:15etik 03:00etara iaz ere gurean egon zen ***Jamaica Show*** orkestrarekin berbena egongo da.

**Aniztasuna azken egunean**

Astelehenak gorroto dituztenak zorioneko daude. San Juan Txiki eguna astelehenean ospatuko da eta hainbat ikuskizun musikal egingo dira San Juan jaiei behar den moduan agur esateko. 18:00etan ***Africa Baj Yay*** taldeak kalejira hasiko du Untzagan eta plazan bertan, 19:30ean, ***Eibarko Cielito*** *Musika Bandak* kontzertu-dantzaldia eskainiko du. Mexikotik etorriko zaizkigu hurrengo doinuak, izan ere, ***Imperial Elegancia Mexicana*** mariatxiak kalejira egingo du Untzagatik 20:30ean eta gero, 21:30ean, emanaldia eskainiko du Untzagan. Ondoren, ***A santo de qué*** taldeak hartuko du mariatxiaren tokia. Debako taldeak pop-rock doinuak ekarriko dizkigu San Juan jaiak zapore onenarekin amaitzeko.


Zea Mays


Irulitxa

EGOLAN CB
26 urte eibartarron zerbitzura
Tfnoa. 943 20 22 39
Mobila. 617 16 33 82
egolan.eibar@gmail.com
AHOLKULARITZA eta GESTIOA
EGOLAN
Julian Etxeberria 7, 7.-C
Eskerrik asko eta ondo pasa Sanjuanak

Fermin Calbeton, 5
943.821.850
premierclass viajesbidaiak
ZUEN BIDAIETAN
primeran!!!
ETA SANJUANETAN
EIBAR FOOTBALL TALDEAREN BIDAIA AGENTZIA OFIZIALA
www.viajespremier.net



# Enbolatuak, Untzagan eta sokarekin

**Joan den urteko Sanjuanetan ez zen enbolaturik egin.** Alkatetzaren aginduz kendu zen jaietako egitarautik eta hainbat urtetan ohikoa zen jarduera eten zen. Aurten, ordea, Kultura Sailak berriz sartu du egitarauan, oposizioko alderdientzako ezustekoa izan den neurria hartuz. Jaien egitarauaren arduradunek, ordea, gazteen eskaera bat dela argudiatu dute eta hainbat berritasun dituzten enbolatuak ekarriko dituzte.



Hasteko, enbolatuak beharrean sokamuturra deitu dakioke ekainaren 23an eta 24an 08:00etan egingo den ekitaldiari. Izan ere, lehen zezenak plazan solte ibiltzen ikusten bagenituen, orain soka batekin lotuta egongo dira. Sokamuturra egingo den tokia da arrazoi nagusia, Zezen Plazan egin beharrean Untzagan egingo delako eta, zezenak lotuta badaude, ihes egiteko arrisku gutxiago egongo delako. Eremu karratu bat (25 metro x 25 metro) eraikiko da sokamuturrean parte hartuko dutenek erraz jauzi ahal izango dituzten hesiekin.

Lasturko Marqués de Sacaren eskutik egingo da sokamuturra eta, segurtasun kontuengatik, pisu gutxiko ganaduak ekartzeko eskatu die Udalak eta albaitari batek egiaztatuko du horrela izango dela. Osasun zerbitzuak egongo dira edozein eratako ezbeharrei aurre egiteko, "*eta Mendaroko ospitalean ere abisatuta daude*", Patxi Lejardi Kultura eta Euskera zinegotziaren berbetan.

Udaltzaingoa, bestetik, adi egongo da sokamuturrean parte hartzen dutenen egoera egokia dela kontrolatzeko, Lejardik adierazi duenez. "*Ez da sokamuturra Eibarren egiten den lehen aldia eta inguruko herrietan arazo gabe egiten bada, hemen ere horrela izango dela uste dugu*".

caracil.com

caracil seguros

CARASA, CILVETI, LACORT y CIA – Aseguru-Artekaritza

JUANJO IRIGOIEN

Juan Gisasola, 6 - behea

Tfnoa. 943 70 29 98 Mobila. 679 517 859 jirigoien@caracil.com

1918-2018: 100 urte zurekin

Esperientzia eta kalitatea dira gure oinarriak

www.etakitto.eus

ALBISTEAK KULTUR-AGENDA KIROL-AGENDA BERBETAN


Belaustegi
BASERRIA JATETXEA
www.belaustegi.com
San Miguel gaina
Tel. 943 74 31 02
Ondo pasa Sanjuanetan!
GURE ESKAINTZA ZURE NEURRIRA

Zuloagatarren, 1 (T. Etxebarriarekin bazter egiten)
Tfnoa. 943 20 65 35
General Optica
General Optica
AUDIOLOGIA ZERBITZUA berehala martxan



# Gozamenaren zapore gozoa



**Asteak daramatzate gure artean, Sanjuanak datozela gogorarazten digute** eibartarroi eta gure jaietako paisaiaren irudi finkoak dira. Barrakak eta Eibarko Bizikleta plaza alboan kokatzen den gozoki postuaz ari gara.

Bizkaia, Errioxa eta Gipuzkoako beste herrietatik datoz haur, gazte eta hainbat helduen gozamenerako Txaltxa Zelaian kokatzen diren barrakak. "*Eibarrera etortzeko gogoarekin egoten gara, jendeak oso ondo tratatzen gaituelako eta jaietako ekitaldi gehienak gu gauden tokitik hurbil egitea oso ondo datorkigulako*", adierazi digu Juan Luis Gonzalez Euskadiko Ferietako Autonomoen Elkarteko (AFADE) presidenteak. Hala ere, aurten zerura begira pasako dituzte Sanjuanak. "*Euria da gure etsai nagusia, orain arte oso eguraldi txarra egin duelako Euskal Herrian*". Momentuz, eguraldiaren iragarpena alde daukate.



**Jose Martin, *parrokiako* postuko saltzailea.**

Autotxokeak, Igela, Dragoia, ohe-elastikoak, txurro-denda, tonbola... gurean ezagunak diren barrakak izango ditugu aurten ere (7 barraka eta bestelako 9 postu). Txaltxa Zelaiko espazio murriztuak barraka berriak ekartzea eragozten duela esan digu Juan Luisek, baina datorren urtera begira berritasunak egotea espero du. Gainera, Txaltxa Zelai azpian dagoen parkinga egitean barrakak kontuan hartu izana eskertzen du. *"Lurzoru sendoa eraiki zuten, bestela barrakak ezin izango zirelako jarri, eta eskertzeko keinua da".*

Eibarko Bizikleta plaza berritu dutenez, bere ohiko postutik hainbat metrora jarri behar izan du gozoki postua Jose Martinek. 47 urte daramatza Eibarrera etortzen, "*3 urte nituenetik*", gurasoekin lehenengo eta emaztearekin orain. Valentziakoa da, baina Euskal Herria maite du. "*Nire bi alabei izen euskaldunak jarri genizkien, Ainhoa eta Nerea*". Urtero bezala, "huts egin gabe", Valentziatik Eibarrera etortzen da Sanjuanetan eta iberiar penintsulako hainbat herritako jaietan egoten da gero.

Eibarri maitasuna hartu dio hainbat urtetan etorri eta gero, "*eta jendea bikain portatzen da gurekin*". "Almendren postua" noiz etorriko zain egoten gara eibartarrok eta gure herrian ongi etorria dela igartzen du Josek. "*Jendea gu etortzeaz pozten da eta gu ere asko pozten gara*".


ISASI OKINDEGIA
LANTEGIA
- Elgetako bidea 9
943 70 07 77
DENDAK
- Ego-Gain, 2
943 20 23 40
- Zabaleta (Bidebarrieta, 10)
943 20 02 25
- Tiburtzio Anitua, 25
- Urki, 15

PUBLI RESA objeto publicitario
Armagin, 3-5 beheak
merchandising
serigrafia
lanerako erropa
publiresa@publiresa.com
943 701 497 / 615 799 419

LEGE AHOLKULARITZA / AUDITORIA
Gaurve
Tfnoa. 943 202 461
Fermin Calbeton, 13-15
Faxa. 943 201 125
www.gaurve.es

C&J CERRAJEROS
Locksmith Cerrajero de Seguridad UCES
Homologatutako enpresa 1502 zkia.
Tel. 943 107 770
Juan Gisasola, 4
EIBAR
www.CerrajeroGipuzkoa.com
cjcerrajeros@gmail.com
Tel. 943 132 314
Araba, 27
ZARAUTZ

# *AUTOEN* ***gehigarria***



40.
zkia.

# IAT BERRIA INDARREAN SARTU DA

Datozen urteetarako Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (IAT) arautuko duen Errege-Dekretu berria indarrean sartu da Espainiar Estatuan. Araudi berriari esker, gidariek estazio berria aukeratu ahal izango dute **bigarren azterketa egiteko**, lehenengoan kontrako emaitza jaso ostean.

Bigarren bisita horretan, arauari jarraituta, antzemandako akatsak zuzendu ote diren bakarrik ikusiko du estazio horrek. Horrela, operadoreen arteko inpartzialtasuna bermatzen da, eta IATko estazio guztiei eskatzen zaie A motako azterketak egiteko ziurtagiria izatea.

Bestalde, ibilgailu-diagnostiko sistema irakurtzeko tresnak erabaliko dituzte estazioek. **2018an isurpenak kontrolatzen hasiko dira**, eta ibilgailuaren gainerako elementuei dagokienez (hala nola, galga ez blokeatzeko sistema, egonkortasunaren kontrolak, aire-poltsak, eta segurtasun-uhalak), IAT-estazioek erabakiko dute noiz eta nola egin horien azterketa.

Gainera, ikuskarien formakuntza-prozedurak indartuko dituzte, hiru urtean behin formakuntzaren gaurkotzea jasoko dute, eta online bidezko heziketa profesionala sustatuko dute. Ikuskari-hautagaiak automozio goi-teknikariak, edo horren baliokide, izan beharko dira.



Araudi berriak IAT iraungitze-data baino hilabete lehenago egiteko aukera ere eskainiko du. Gainera, Europar Batasuneko beste herrialde batean egindako IAT onartuko da Espainiar Estatuan, ibilgailu horren matrikulazioa eskatzean.


AUTO - RECAMBIOS Umbe
Barrena, 11 umbe.holyauto@hotmail.com
Tel. 943 12 04 00 Fax. 943 70 20 65
Autoarendako hornidurak eta ordezko piezak
HolyAuto GROUP

garajesGarcía.com
Auto berrien, erabilitakoen eta KM0-koen SALMENTA
Begiratu gure finantziazioak autoa erosterakoan
BOSCH Service Car Service
ENGANCHES ARAGON
BANATZAILE OFIZIALA: Enganches ARAGON
943 202 214 / 943 127 271

Autos Amedi
CITROËN
SALMENTA eta KONPONKETA
autosamedi@telefonica.net
717 067 879
943 170 414
Zearreko buelta, 3 zkia. - ERMUA




MAK CARROCERIAS
Matsaria, 2
3 Pabilioia
-Eibar-
Pintura (labean lehortua) Txapa
Neumatikoak Mekanika
943 208 502 carrocerias_mak@hotmail.com 699 203 791

GASOLEOEN BANAKETA
ZERBITZU ONENAREN SARIA
estación de servicio kantoi eibar
20.000 L.
2.000 L.
24 ordu
Otaola etorbidea, 13 -Bis
Tfnoa. 943 20 73 74 / 94 671 02 77
GAUEZ ZERBITZU AUTOMATIKOA

AUTO KONPONKETAK
AURRERA
● Mekanika - Elektrizitatea
● ITVrako errebisioak
● Frenoak - Amortiguazioa
● Mantenimendua - Erroberak
Urtzaile, z/g
Telefono eta Faxa: 943 20 80 65
20600 EIBAR
(Gipuzkoa)

LASKURAIN ASEGURUAK
ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK
RAC VASCO NAVARRO
R.A.C.V.N.-ren ordezkaritza
J. Etxeberria, 7 (Aldapatxo)
Telf. 943 20 37 13 / 943 12 05 30
Faxa. 943 70 28 87
rac@jalaskurain.euskalnet.net

www.AUTOBOX.BIZ
ALQUILER DE BOXES
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATEA
ERREMINTAK ETA AHOLKULARITZA DOAN
OSAGAI, ORDEZKO ETA NEUMATIKOEN SALMENTA
ASTELEHENETIK OSTIRALERA 09.30-13:00 / 15:00-20:00 LARUNBATETAN 09.30-13.30
Ibur Erreka, 38 - Olarreaga Auzoa, 38
(Eibar eta Ermuaren arteko probintzia mugan)
Tfnoa. 943 20 72 44 Mobila: 651 85 50 60
www.autobox.biz
autobox@autobox.biz

MAPFRE ASEGURUAK
LOURDES URZURIAGA
987 ZENBAKIDUN DELEGATUA
AUTO ETA ETXEBIZITZA ASEGURUAK
JUBILAZIO PLANAK
INBERTSIO FONDOAK
OSASUN ASEGURUAK
ENPRESA ASEGURUAK
Sostoa, 1 - behea (EIBAR) lurzuri@mapfre.com
☎ 943 820 449 Faxa: 943 820 609 Mobila: 607 401 929

Torrekua, 2
20600 EIBAR
Tel. eta Faxa
943 20 62 48
Tel. 943 20 70 31
eseibar@facilnet.es
ESTACION DE SERVICIO EIBAR, S.A.
AVIA
FURGONETEN ETA AUTOMOBILEN GARBIKETA AUTOMATIKOA ETA PRESIOAREKIN
LUBRIFIKATZAILEAK
GASOLEOEN ZUZENEKO BANAKETA
24 ordutan zabalik
www.estaciondeserviciоeibar.com

NISSAN
Innovation that excites
STOCKA LIKIDATZEN ARI GARA
Nissan Gaursan
9.000€*
arteko
BEHERAPENA
Crossover-etan
EKAINAREN 30ERA ARTE
BIZKOR, HEGAN EGITEN DUTE ETA!



GAURSA
Otaola Ibilbidea, 22 . 20600 - Eibar . Tél: 943 820 974
www.gaursa.com

*Gehieneko beherapena Nissan Xtrail 1.6DCI 130CV 4x4 TEKNA bat erosten duten partikularrentzat, baldin eta eroslearen izenean dagoen NISSAN auto bat ematen badute, eta RCI Banque SAren (Espainiako Sukurtsala) Magic Plan 3D-rekin finantzatzen badute. Finantzatu beharreko gutxieneko zenbatekoa: 7.000€. Gutxieneko egonaldia: 24 hilabete. Promozio-beherapenak barne. Eskaintza hau bateraezina da beste kanpaina batzuekin, eta 2018/06/30era arte egongo da baliagarri Nissan Gaursaren instalazioetan. Informazio gehiagorako, kontsultatu www.gaursa.com.

# AUTOAN BIDAIATZEKO AHOLKUAK

Autoa hartu aurretik, mekanika-kontuak aztertzeaz gain, autoaren paperak nola dauden begiratzea ere komeni da.

Bidaia luzea hasi aurretik autoa aztertu egin behar da, bidean gaudela ustekaberik ez izateko. Ohiko aholkuak badira ere, sarri ez dira behar bezala betetzen.

Azterketa norberak egin dezakeen arren, tailerrean ere begiratu bat ematea komeni da. Batetik, motorraren likidoak maila egokian dauden ikusi behar da: ura, frenoak, haizetako garbigailua eta olioa. Modelo berrietan 15 mila kilometrotik behin aldatu beharko da olioa, baina ibilgailu bakoitzaren araberakoa da hori.

Bestetik, gurpilak ere aztertu beharra dago, gastatuegiak egon ez daitezen. Gurpil osoan marrazkiak uniformea izan behar du, eta daraman presioa ere, egokia. Eraman beharreko zamaren arabera, presioa ere aldatuko da, baina presioaren balioak autoaren eskuliburuak zehaztuko ditu.



Argiak aztertzea ere garrantzitsua da. Horretarako, argi guztiek neurrian argitu behar dute, itsutu ez dezaten. Argiren bat erreko bada ere, autoan argi sorta bat izatea ere komenigarria da, egungo araudiak derrigortzen duela ahaztu gabe.

Tailerrean, guk aztertutakoaz gainera, motorra eta pieza guztiak aztertuko dituzte. Olioa aldatzeko gertu bagabiltza eta kilometro asko egin behar badira, aldaketa aurreratzea da egokia, leku ezagunean beharrezko olioa jar diezaioten.

Autoen mantenimendu integrala
Talleres Caño
Oscar Caño Rubio
Armagin, 8 Ac
943 53 08 70 / 639 51 70 44 oscarc.rubio@gmail.com

ACITAIN, S. A.
ZERBITZUGUNEA
www.acitain.com
AVIA
● 24 ORDUKO ZERBITZUA
● Gasoleoen zuzeneko banaketa
● Garbiketa automatikoa eta presioarekin
Tel. 943 12 16 62 Tel./Faxa. 943 12 18 62 acitain@gmail.com

VALDI
TAILER MEKANIKOAK
Autoen konponketa orokorra.
Injekzio mekaniko eta elektronikoa.
Aire egokitua.
Injekzio elektronikoa gasoila.
Alarmak, errobera aldaketak,
motorrendako erroberak…
Barakaldo 19, behea
Telf. 943 12 73 98
Mob. 639 004 603
tmvaldi@hotmail.com
Talleres VALDI

ZURICH
Lejardi S.L. Aseguru Agentzia
Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar

EZ DA PROMOA, BENETAN EGIA BAIZIK.
Eibarko PREZIORIK merkeenak...
...MARKA guztietako neumatikoetan



Carrocerías ARANE
Arane, 6 - 3.
Tel. 943 70 26 20
Fax. 943 12 19 54
arane.carrocerias@hotmail.com

Zure betiko KARROZERIA...



... orain MEKANIKA zerbitzuarekin

# AUTOAN BIDAIATZEKO AHOLKUAK

Beste hainbat kontu ere aztertu behar dira. Kolpe motelgailuak, gidagailua eta galgak, esaterako. Erosotasunari dagokionez ere, kontuan izan behar da aire egokitua, beharrezko isuriaren erditik behera bagaude bidaia erdian airerik gabe geratuko baikara.

Autoan eraman beharreko paperak ere ez dira ahaztu behar. Gidabaimena (gidariarena eta autoaren jabearena), azterketa fitxa teknikoa eta asegurua, azken honen ordainagiriarekin batera. Europatik kanpora, beharrezko izango da nazioarteko gidabaimena, eta Austria, Italia eta Suitzan adibidez, hango eskakizun bereziak.

Ordu luzez gidatzeko, atseden hartuta egon beharko da. Aurrez ondo lo egin, autoan jarri aurretik gehiegi jan gabe eta gure arretan eragina izan dezaketen sendagaiak hartu gabe.

Bidaia luzea hasi aurretik oso garrantzitsua izango da auto barrualdea ondo antolatua egotea. Poltsa guztiek ongi lotuta  egon behar dute, eta saiatu gainaldean ezer ez jartzen. Bertan, gauza handi eta pisutsuak baino ez dira eraman behar, bizikletak eta maletak kasu.

Paperak eta larrialdietarako telefonoak ditugula gogoratu behar dugu, eraman beharreko ekipaia ondo antolatu eta autoak pisu gehiegi hartu ez duela ikusi. Ateratzeko ordua ere ondo aztertu behar da, haurrak, zirkulazioa eta klima kontuan hartuz.



Bidaian arropa eroso eta arina jantzi behar da, bero edo hotz handirik ez izateko, gidatzean arreta gal baitezakegu horregatik. Gainera, gidariak zein beste guztiek segurtasun uhala jarrita eraman beharko dute une oro, eta umeek beren adinerako aproposa den aulkian joan beharko dute eserita, sekula ez nagusi baten altzoan. Animaliak ere ezin ditugu utzi aske auto barruan; beharrezko neurriak hartu behar ditugu.

Noizean behin geldialdiak egin behar dira atseden hartzeko. Bi ordu baino gehiago gidatzea ez da komenigarria. Bestalde, iristeko ordua jartzea ere ez da mesedegarria, errepideko zirkulazioa eta errepideak nola dauden aurrez ez dakigulako.

Logale bagaude, hoberena autoa gelditu, aurpegia freskatu eta zerbait hartzea izango da. Autoa fresko eduki, eta musika jartzea komenigarria izan daiteke bidaia jarraitzeko. Nekatuta gaudela sumatzen dugunean, gelditu eta atseden hartzea da komenigarriena.




# Euskal Jaialdiaren zilarrezko ezteiak

Aldaketa garrantzitsuarekin dator, gainera, Euskal Jaiaren 25. edizioa. Oraingo honetan atzeratu egingo delako egitarauan, San Juan Txiki egunera pasatuta; eta, horrez gain, orain arte moduan arratsaldez egin beharrean, eguerdira pasatuko delako. Herri-kirol ikuskizuna 12:30ean hasiko da eta Untzagako harmailen aldea hartuko du. Betiko lez, hainbat kirol-modalitate dastatzeko aukera izango du zaleak, asetzeko moduan.


Bihurri eta Hodei


Iñigo Jimenez


Ostolazatarrak

Kirol modalitateen artean ez dira faltako Iparraldeko jokoak, oraingoan Karlos Aretxabaletaren eskutik. Erakustaldian lastoa altxatu eta jaurti egingo du, ingudearekin ere saiatuko da, beste berezitasun batzuekin batera. Harriarekin, bestalde, Joseba Ostolaza eta Udane bere alaba izango dira erakustaldia egiten, aurretik ere gure herrian hainbatetan egin duten moduan. Eurekin jardungo du Iñigo Jimenez eibartarrak, orain dela gutxi plazara jauzi egin duen harrijasotzaileak.

Herri-kirol modalitateen pou-pourrian, ohikoa denez, aizkora lanean hiru bikoteren arteko lehiak hartuko du pisu gehien San Juan Txiki eguneko erakustaldian. Tartean izango dira Ernesto Ezpeleta "Bihurri" eibartarra eta Hodei bere semea, eta eurekin jardungo dute Alex Txikon ospetsua (alpinismoan batez ere), Zelai III.a, Goizeder Beltza eta Julen Aranberrik. Hiru hirukote osatuko dituzte (aizkolari bi eta harrijasotzaile batekin) eta, hainbat probari aurre egin eta gero, lasterka hainbat itzuli eginez amaituko dute saioa. Bai harriarekin bai aizkorarekin, *"euren jardunean saio ezberdinak erakutsiko dituzte: esku bakarra erabilita, harri desberdinak altxatuz, txingekin plazak eginaz, hainbat modalitate nahastuz..."*.

...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen Euskal Jaialdiak *"ordu eta laurdenetik ordu eta erdira tarteko horretan errenditudo da"* eta ez da aspertzeko astirik izango. Ikusgarritasunaz gain, badakite-eta emozioa ere piztu dezakeen lehia prestatzen. Beti izan da lehia bizia!

**AIZKOLARIAK**
**Ernesto E. "Bihurri"**
**Hodei Ezpeleta**
**Goizeder Beltza**
**Alex Txikon**
**Zelai III.a**
**Julen Aranberri**

**HARRIJASOTZAILEAK**
**Joseba Ostolaza**
**Udane Ostolaza**
**Iñigo Jimenez**

**IPARRALDEKO JOKOAK**
**Karlos Aretxabaleta**

ROTULOS JBA
943 20 88 69
Sostoa,3 EIBAR www.rotulosjba.com

Twins
Bidebarrieta, 8 • tel. 943 05 60 82

FISIOTERAPIA MUGI
Eider Mugica Aristondo
Tel. 669 735 925
Egigurentarren, 18

Grow 13 14 Eibar
GROW SHOP
Lanparak
Balantzak
Haziak
Pipak
Grinder
Txaltxa Zelai, 2-A
Tel. 943-531909

EIBAR

HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

Sanjuan jai zoriontsuak!!

- KALITATEA PREZIORIK ONENEAN, TRATAMENDU GUZTIETAN
- ARRETA PERTSONALIZATUA, HURBILA ETA PROFESIONALA
- HAGINLARI KOLEGIATUAK, 10 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIAREKIN
- ODONTOPEDIATRIA ZERBITZUA, HAURDUNALDITIK | KLINIKAN KONTSULTATU



R.P.S. 259/15
MAITANE G. IÑIGUEZ
ODONTOLOGIAN LIZENTZIATUA

ZERBITZU GUZTIAK KLINIKAN BERTAN

- ODONTOLOGIA OROKORRA
- HAUR-ODONTOLOGIA
- HORTZ ZURITZEA ETA ESTETIKA
- ORTODONTZIA
- PROTESI FIJOA ETA KENTZEKOA
- ZIRUGIA ETA INPLANTEAK

SAN AGUSTIN KALEA, 4 BEHEA EZKERRA, 20600 EIBAR

TELEFONOA 943 537 076 MUGIKORRA 688 884 808

www.eibarclinicadental.com info@eibarclinicadental.com

# San Juan pilota torneoko finalak jokatuko dira gaur arratsaldean

**Astelena frontoiak gaur 18:15ean zabalduko ditu ateak San Juan Torneoko XXIV. edizioko finalei hasiera emateko.** Guztira bost partidu jokatuko dira Klub Deportiboak antolatutako jaialdi betean: hasteko, pilota eskolako bi norgehiagoka jokatuko dira, jarraian kadeteen artekoa eta, amaitzeko, senior mailako beste bi. Lau partidu binaka jokatuko dituzte eta bakarra izango da buruz-burukoa, lau eta erdiaren barruan. Pilota eskolako ordezkariak benjamin mailako partiduarekin abiatuko dira (Usobiaga eta I. Ortega vs Ibarra eta Varona), jarraian alebinek lekukoa hartzeko (Gisasola eta Pacheco vs Ibarra eta Fernandez). Kadeteen partiduan Azkargorta eta Fuentesek Camina eta Sanchezi egingo diete aurre. Azkenik, senior mailako neurketetara iritsita, kaiola barrukoa jokatuko da aurretik, Narbaiza eibartarra eta Viana zumarragatarraren artean. Jarraian, Klub Deportiboko hiru ordezkari eta elgoibartar bat izango dira azken partiduan: Zubizarreta eta Agirresarobe alde batetik, eta Gastañaga Elgoibarko Conderi laguntzen atzeko koadroetan.

Txapelen jabe

Debako eskolarteko txapelketaren lehenengo edizioa jokatu da aurten eta han izan dira Eibarko pilota-eskolako zenbait pilotari. Eta baita txapelekin itzuli ere. Benjaminetan guztiz nagusitu zen Eibarko ordezkaritza, txapeldun eta txapeldunorde geratzeraino: Ugaitz Segurolak eta Iker eta Eneko Ortegak osatutako taldea izan zen onena, Ekhi Azpilikuetak, Aratz Ibarrak eta Xuban Varonak osatutakoaren aurretik. Eta Gipuzkoako txapelketaren eskuz banakako lehendabiziko finalen barruan, Mikel Azkargorta eibartarrak 2. mailako kadeteen finala galdu zuen lau eta erdiaren barruan (10-22) eta txapeldunorde izatearekin konformatu behar izan zuen denboraldi bikaina egin ondoren.



*Azkargortak Gipuzkoako azpitxapeldun izan zen.*



Fernando Sotoca

# Aitor Monterok denboraldiko bigarren podiuma lortu zuen Motorland Aragonen

**Eibarko motorzaleak lasterketa bikaina egin zuen Gaztela-Mantxako txapelketaren hirugarren proban,** *"orain arte jokatu dudan probarik osoenean"*. Lan asko izan zuen pilotoak berak eta motorra punturik onenean ipintzeko laguntzen diotenek barixaku guztian; hala ere, zapatuko entrenamenduetan ezin izan zuen bosgarren postua hobetu. Domekan, baina, bikain irten zuen Monterok eta, *"borrokan zebiltzan biren arteko deskuidoa aprobetxatuta"*, biei aurrea hartu eta hirugarren postuari eutsi zion lasterketaren amaierara arte. Horregatik, pozik eta oso esker oneko azaldu zen beste behin Aitor: *"Hasi babesleek eskaintzen didaten guztitik eta familiakoen eta gertuko lagunen animo paregabeekin jarraitzeko"*.

# Otxoa Memoriala irabazitako Barrenetxea nagusi San Juan Sarian

**2016an kadete mailako Otxoa Memoriala bereganatu zuen Jon Barrenetxeak irabazi zuen** aurreko domekan junior mailako San Juan Sariaren 83. edizioa, Gipuzkoako txapelketarako baliogarria zena. 28 taldetan banatutako 113 txirrindulari izan ziren irteera-puntuan eta euretako 84k amaitu zuten ia 100 kilometroko (98) lasterketa, tartean Kalbario eta Azkarate gainak gaindituta. Gastronomia Vasca-ko Barrenetxeak irabazi zuen bederatzi laguneko esprintean, Aitor Larrañaga (Donosti Berri) eta Xabier Berasategiri (Ampo-Goierriko TB) aurrea hartuta. Larrañaga bigarren sailkatuak Gipuzkoako txapela jantzi zuen, mendia Aketza Aranarentzat (Vicinay Cadenas) izan zen, taldeka Ampo nagusitu zen, lehen urteko junior onena Bellota-Goierriko Alex Diaz izan zen eta, azkenik, Ciclos Iturriagako Jon Ibarluzearentzat izan zen Debabarrenako onenaren saria.

Eibarko Txirrindulari Elkarteak ez du bestelakorik antolatuko irailaren 16ra arte, egun horretan Pedalaren Eguna egingo dute, ohikoa denez, adin guztietarako prestatutako egitarauarekin: errepideko eta BTTko irteera ziklotouristak izango dira helduentzako eta hiri barruko zirkuitoa txikienentzat.


*Jakak egingo dio aurre Altunari.*

# Altuna txapeldunak jokatuko du San Juan eguneko jaialdian

**Jokin Altuna gaur egungo 1. mailako bi txapelen jabeak (lau eta erdian eta frontoi guztian)** Nafarroako kaiolaren barruko txapelketan sartuko da domekan Astelenan egingo den jaialdiaren partidu nagusian. Jaka izango du aurkari, Elezkanoren bajari esker aurreko kanporaketan zuzenean pasatu ondoren. Jaialdia Mendizabal-Martija eta Elezkano-Ruiz bikoteen arteko lehiarekin hasiko da eta binakako beste partidu batekin amaituko, Dario-Erostarbe vs Elordi-Jaunarena hain zuzen ere. Erreserbak egiteko aukera ere bada, 661 259 009 telefono zenbakira deituta (Olaya).

# Maite Barruetabeña nagusitu zen igeriketako XXX. San Juan Sarian

**Eibar Igerixan Kirol Klubeko igerilariaren garaipenarekin batera, aipatzekoa izan zen** Jon Osa taldekideak egindako lana, hirugarren amaitu baitzuen San Juan Sarian, Bidasoa XXIeko Ander Arruabarrenak irabazitako lehian. Ipurua kiroldegian jokatutako torneo horretan Artza Aloña Mendiko entrenatzailea omendu zuten. Hurrengo egunean, gainera, Oñatira joan zen Eibar Igerixan-eko ordezkaritzak hainbat marka egin zituen eta dominekin bueltatu. Guztia lana ezin delako izan, *"primeran pasatzeko"* tartea ere izan zuten Eibarko klubekoek Gamarrara egindako irteeran: kamiseten banaketa, jokoak, piknik bazkaria... neska-mutil eta gurasoek ondo gozatu zuten.



*Bergaran lehiatu zuen Eibar Igerixan ordezkaritza.*

Udako Gipuzkoako Txapelketa

Azken asteburuan, bestalde, senior, junior eta infantil mailako Gipuzkoako txapelketa jokatu zen Bergarako Agorrosin kiroldegian. Seniorretan Ruben Torresek zilarra irabazi zuen 1.500 metroko proban. Juniorretan Maite Barruetabeñak txapela jantzi zuen 200 metro bularrean, 100 metro tximeletan eta 400 metro librean eta bigarren izan zen 100 metro bularrean; Jon Osa ez zen atzean geratu eta txapela jantzi zuen 200 metro estiloan eta 50 metro bizkarrean eta bigarren izan zen 200 metro librean eta 100eko tximeletan. Eta Elene Oiarzabalek brontzea irabazi zuen 50 metro librean. Eta infantiletan ere txapelak ekarri zituzten Eibarrera: Kai Zubiaurrek bular estiloko 50 metrokoa irabazi zuen eta brontzea lortu zuen 200 metrotan, Inge Erkiagak 50 metro bularrekoa irabazi zuen, eta Paula Gabilondo hirugarren izan zen 100 metro bularrean



# Urki Foball Taldeak denboraldia agurtu du

**Ipur sagardotegian agurtu zuten denboraldia Urki FT-ko talde guztietako jokalari** eta teknikoek urtero egiten duten afariarekin. Aurreko barixakuan 214 lagun batu ziren ekitaldian Paulino Cajas entrenatzailea omendu zuten eta talde guztietako goleatzaile nagusiek eta erregulartasun gehien erakutsitako jokalariek ondo merezitako sariak jaso zituzten. Izan zen sari biak jaso zituen jokalaririk ere, Ohorezko kadeteen mailako Markel Perez kasu.

# Conchita Arizmendiarrieta raketista ohiak laga gaitu



**Kanariar Uharteetan bizi zen azken urteotan Conchita Arizmendiarrieta Azkarate raketista izandakoa** bere alabarekin, eta han hil da, 97 urterekin. Oso gazte hasi zuen bere kirol-ibilbidea, 16-17 urterekin Sevillara joan zenean eta, gerra zibilaren ondoren, Donostiara bueltatu zen. Gero Bartzelonara joan zen jokatzera eta, handik, Valentziara. Mediterraneoko hiri horretan ezkondu zen, baina ez zen hor amaitu raketarekin izandako lotura, ama izan eta gero ere deitu baitzioten Mexikotik eta han eman zituen bere azken urteak raketista moduan.

# Alberto Ferreiro garaile squash XV. Eibar Hirian



**Eibartarrak nagusitasun handia erakutsi zuen** Oberenako David Marin gainditzuz Eibarko torneoaren finalean (3-0) eta akatsik gabeko torneoa osatu zuen. Emakumezkoetan Club Squash Leongo Reyes Nicolas nagusitu zen, finalean Benedikta Squash-eko Isabel Sotori 3-1 irabazita. Barixaku eta zapatuan Ipurua kiroldegian jokatutako torneoan 35 jokalarik hartu zuten parte koadro mistoan eta beste lauk emakumezkoan, guztira 71 norgehiagoka jokatzeko. Ferreirok aurretik ere irabazi du Eibar Hiria Squash txapelketa eta hor jarraitzen du, euskal ranking-aren gorenean.

# Arrateko bertso-afariak badu kartela




Arrate egunaren bezperan Kantabria jatetxean urtero egiten den bertso-afariak iragarri du bertan izango den bertsolari-laukotea zeintzuk osatuko duten. Ez da aldaketa handirik izango: iazkoarekin konparatuta, bakarra, oraingoan Aitor Sarriegi gipuzkoarrak hartuko baitu Onintza Enbeita bizkaitarraren tokia. Beste hirurak Maialen Lujanbio txapelduna eta urteetan kalerik egin ez diguten Sebastian Lizasok eta Andoni Egañak osatutako bikotea izango dira. Afaria, ohikoa denez, 21:00etan hasiko da. Gai-jartzailea Jon Mikel Mujika izango da.

26. edizioaren aurrean gaude; beraz, iaz laga genituen atzean bertso-jaialdiaren zilarrezko ezteiak. Hala ere, ekitaldiak ez du indarrik galdu eta, ikusita kartela osatzen duten bertsolarien maila, *"gaur egun aurki daitekeen onenetarikoa"*, ez da arraroa, inondik ere, horrela izatea. Horregatik, txartelak erosteko bi txanda zabalduko ditu ...eta kitto!-ko talde antolatzaileak: elkarteko bazkideentzako aurre-salmenta izango da indarrean uztailaren 2tik 13ra arte, hau da, uztailaren lehenengoko bi asteetan, eta bigarren txanda uztailaren 14an abiatuko da, jende guztiarentzat salmenta librea izango dena.

Aurre-salmentan bazkideek 31 eurotan erosi ahal izango dituzte sarrerak (iazko prezio bera), eta bazkide bakoitzak bi sarrera hartzeko aukera izango du. ...eta kitto! Euskara Elkarteko bulegoan honako ordutegia ipini dute: 10:00etatik 14:30era eta 18:30etik 20:00etara. Bestalde, uztailaren 14tik aurrera sarrerak ohiko lekuetan erosi ahal izango dira: Kultu eta Sagarbitza tabernetan eta Kantabria jatetxean bertan, 32 eurotan. Badaezpada, ez laga azken ordurako, aukera paregabea da-eta!









Izadi
LORADENDA
– Lora eta landare natural eta lehorrak
– Ezkontzetarako lorak
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29


VALENCIAGA
Ospakizun guztietarako behar duzuna
Bidebarrieta, 12 943-202233

SOUL
estilistak

San Agustin, 3
943 567 232
www.peluqueriasoul.com

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM

EGUREN & ASOCIADOS
ABOGADOS
JOSE VICENTE PEROSANZ
Mª LUISA SOROA
MARTA VALERA
IRATXE URIBEZUBIA
TEL. 943 204 194
FAXA. 943 820 006
Urtzaile, 1
egurenyasociados@gmail.com

# Ondo pasa Sanjuanetan!!

GASTROTEKA BOSSA
Ego gain, z/g
943 20 67 53

TUNEL-PE bar
Plater konbinatuak
Pintxoak
Ogitartekoak
San Juan 3
☎ 943 700 641

KATU kale

SOKOA
EIBAR-ONDARRU
birjiñape, 1 behea
tel. 943 20 71 00
SOKOA



CAFETERIA BAISI
Urkizu II, Behea - 943 53 08 16
Gora San Juanak!



etxera eramateko janaria
Bidebarrieta, 39
943 845503
ETXEKO JAKI DENDA
baratze

Su Beroa
Bista Eder, 11
Tel. 943 47 77 79
suberoataberna@gmail.com

Kili Kili
☎ 943 20 24 01
- Gosariak
- Plater konbinatuak
- Eguneko menua
Egunero 07.00etan zabaltzen dugu

chalcha
RESTAURANTE CHALCHA
T. 943 20 11 26 - Isasi, 7
ZATOZ GURE ADMINISTRAZIO BERRIA EZAGUTZERA
JATORDUAK astelehenetik ostiralera, 18 eurotan
Bestelako MENUAK aste osoan, 30 eurotan
Betiko KARTArekin jarraitzen dugu, parrillan egindako arrain freskoenak eta okel apartekoenekin





# Sanpedroak

# Jai giroa hilaren 29ra arte

Egun bateko atsedena hartzeko aukera egongo da Sanjuanak amaitu eta Sanpedroak hasi baino lehen. Nahikoa izango da indarra hartu eta jaiez gozatzen jarraitzeko. Jai giroa tokiz aldatuko da, Urkizu aldean zentratuko direlako ekintzak, baina eskaintzak zabala izaten jarraituko du haur, gazte eta helduentzat.



Hilaren 27an, eguaztena, umeak izango dira protagonista Karmen kalean. 16:30ean umeentzako **txokolate-jana** egingo da, 17:00etan umeentzako jokoak antolatu dira eta 19:00etan **Gorriti** eta bere abereekin jolasteko aukera izango dute gaztetxoek Karmen kaleko plazan.

Hurrengo egunean, 28an, 12:00etan Karmen kaleko parkean egingo den **toka eta igel-toka** txapelketak izango dira goizez egingo diren ekintza bakarrak, baina arratsaldeko egitaraua beteta dator. 18:00etan **Trio Medianochek** emanaldia eskainiko du parkean, 19:00etan **La Novena** antzerki taldeko Ernesto Barrutia eta Isabel Gonzalezek 'Cuadros de amor y humor al fresco' ikuskizuna egingo dute, 20:00etan **Kaleetan Kantu**zekoek hartuko die txanda (21:00etan taldeari ongietorria egingo zaio eta piskolabisa egongo da Beheko Tokian) eta 21:30ean dantzaldia eskainiko du **'Tukan'** taldeak.

San Pedro jaiekin amaitzeko, hilaren 29an, 12:00etan meza egongo da Carmen Parrokian **Gospel Bilbao** ahots taldearekin eta gero, 13:20ean, toka eta igel-toka txapelketaren banaketa eta **piskolabisa**ren txanda iritsiko da.

KINKILA
Creaciones Bebé
– Mertzeria
– Umeendako jantzigintza
SONIA JARAMILLO
943 70 23 29 Bidebarrieta, 16
creacionesbebe@live.com



TXUTXUFLETAS
PRENTSA
ALDIZKARIAK
GOZOKIAK
FRUITU LEHORRAK
• OGI BEROA
T. Etxebarria, 24 TEL. 943 20 60 10

Gestoria Alonso
San Agustin, 5 - BEHEA
618 25 93 44
943 20 20 17
mcalonsoeibar@gestores.net



Fisioterapeuta
18 zenbakiko
Kolegiatua
FISIOTERAPIA GUEREÑU
EIBARKO TXIKITO, 12
BEHEA ESKUMA
TELEFONOA:
943 12 14 80



EROSKI
zurekin
Ondo pasa Sanjuanetan!
ekainak
larunbata 23
Zure poza elikatzen
BEZ*a
Oparituko dizugu
DENEAN
Euskadiko (Txurdinaga salbu), Nafarroako, Errioxako eta Kantabriako EROSKI Hipermerkatuetan 90€tik gorako erosketengatik.
EROSKI club
Zure txartelean itzuliko dizugu
* Kutxan ordaintzean EROSKI Club txartela erabilita, egindako erosketaren BEZari dagokion zenbatekoa sartuko dizugu txartelarekin lotutako EROSKI Club kontuan. Adib. %21 BEZ daukan 100 €-tik gorako erosketa batengatik 17,35 € sartuko dizkizugu EROSKI Club txartelean. **(EROSKI Club kontuan sar daitekeen gehienezko zenbatekoa: 250 euro).** Promozioa Euskadiko (Txurdinaga salbu), Nafarroako, Errioxako eta Kantabriako EROSKI Hipermerkatuetan izango da baliozkoa. Promozioan ez dira barne hartuko testu-liburuak, esperientzia-paketeak, telefonoen kargak, E-pay txartelak (aurreordainketa-txartelak), errebelatu digitala eta fidelizazio-promozioen bidez (puntu bidezkoak edo parekoak) eskuratu daitezkeen produktuak. Kontsultatu gainerako baldintzak zure ohiko saltokian.




RPS 233/13
aldaz
hortz klinikak · clínicas dentales
ONDO PASA SAN JUAN JAIAK!
SAN BARTOLOME, 22
ELGOIBAR
943 36 63 77
943 366 377
www.dentalaldaz.com



## Juan San Martin liburutegiak martxan izan dituen lehiaketen sariak banatu dituzte

**Astelehen arratsaldean, umeen liburutegiak hartu zuen ekitaldian banatu zituzten** Juan San Martin liburutegiak martxan izan dituen lehiaketen sariak. Batetik, Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko antolatu zuten "H. C. Andersenen ipuin bat komikian" lehiaketan parte hartu zuen Iraia Santos Pageiri diploma eta oparia eman zizkioten, estatu mailako lehiaketan, lehen irakurleen atalean, "Berunezko soldadutxoa" izenburuko bere lana izan delako irabazlea euskarazko kategorian. Berak ez ezik Liburutegiak ere saria jaso du, haurrek lehiaketan parte hartu dutela saritzeko. Eta horrekin batera, aurten 9. edizioa bete duen "Li(buru-hausgarriak" lehiaketan parte hartu duten neska-mutilei ere diploma eta opari bana eman zizkietan. Eva Alberdi liburutegiko koordinatzailearen berbetan, *"lehiaketa honetan, liburuak irakurri eta gero, irudi ezkutua duten buru-hausgarriak osatzen joan behar dira umeak, Eibarri edo liburutegiari buruzko galdera batzuei erantzunda, zein irudi den asmatu arte. Aurten, apiriletik hona, 444 liburu irakurri dira lehiaketan, %85 euskaraz, eta 114 buru-hausgarri osatu dira. Bost irudi asmatu nahian ibili dira eta 5 umek lortu dute bostak asmatzea eta saria, berriz, 49 umek lortu dute".*

## Untzaga kolore biziz bete zuten Kezka taldekoek barixakuan

**Dantzari Egunarekin agurtu zuten barixakuan kurtsoa Kezka dantza eskolako ikasleek.** Untzagan, taldeko dantzariekin batera ikasleek eskaini zuten emanaldia hasi aurretik, arratsaldearen zati handi bat zerura begira eman zuten dantzariek, edozein unetan euria hasiko ote zen beldur, eta azkenean dantza saioa euripean egin behar izan zuten. Hala ere, urteroko moduan, saio ederra egin zuten Kezkarekin euskal dantzak ikasten dituzten neska-mutilek.



*Euriak ez zituen dantzariak kikildu euren onena emateko.* **Maialen**

## Zine emanaldiak agurtu dituzte Coliseoan




**Asteburu honetan agurtu dute denboraldia Coliseo antzokiko zinema emanaldiek.** Udako oporrak amaitzean, irailaren 8an bueltatuko dira zine emanaldiak. Hala ere, abuztuan zinearekin gozatzeko aukera izango da, iaz egindakoaren bidetik aurten ere udako zinema programazioa prestatu dute eta. Pelikulak Untzagan proiektatuko dituzte, doan, abuztuaren 2an, 9an, 16an eta 23an.

## Amañako jaiak ate joka

**Sanjuanak atzean laga eta, ia atsedenerako tarte barik, Amañako jaiak ailegatuko zaizkigu.** Jaietarako egitarauaren aurkezpena ekainaren 29an, barixakuan, egingo dute, ohikoa denez Laboral Kutxak auzoan duen bulegoan. Ekitaldia eguerdiko 13:00etan hasiko da eta, herriko beste kolektiboetako ordezkariak gonbidatzeaz gain, Amañako Jai Batzordeak Txus Alzaga Urki FT-ko presidentea eta Fernando Fernandez eskubaloi jokalari-ohi eta entrenatzailea omenduko ditu. Egun berean mus txapelketa jokatuko da gauez Artetxa tabernan.



Jaietako ekitaldi nagusienak uztailaren 6tik 8ra bitartean pilatuko badira ere, aurrerapena izango da aurkezpena egin eta hurrengo egunean: hilaren 30ean, zapatuan, Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoek urteroko bisita egingo dute auzora, 19:00etan hasiko den ikuskizunarekin. Aurretik txokolate-jana egingo da, 18:00etan, eta gauean, berriz, herri-berbena, 21:00etatik aurrera.



## Monda eta Lironda pailazoen ikuskizuna

**Ekainak 30ean, zapatuan, umeendako ikuskizuna** antolatu dute El Corte Inglesean, 3. solairuko terrazan: 17:30ean hasiko da Monda eta Lironda pailazoen saioa eta sarrera dohainik izango da.


breaking



kale-antzerkia


Kubako doinuak


musika banda


simulazio jokoak

# Aurreko asteburuan hasi ginen jaietarako berotzen

**Asteburu honetan Sanjuanak bete-betean ospatuko baditugu ere,** aurreko asteburuan herrian egindako jarduerek jaietarako girotzen joateko aukera aparta eskaini ziguten. Barixakuan Dantzari Eguna hartu zuen Untzagak, Coliseoak **Eibarko Balleta**ren emanaldia eta Astelena frontoian **boxeoa**ri eskainitako gauaz gozatu zuten. Zapatuan, besteak beste, XV. Eibarko Hiria Squash Saria jokatu zuten Ipurua kiroldegian, Arraten XXXIV. **Extremadurako** Herrialde Elkarraldi Jardunaldia egin zuten eta Hezkuntza Esparruan San Juan XXVIII. **Tiro Txapelketa** egin zuten, Dinbi Danba elkartearen eskutik eta Ipuruako bolatokian, berriz, XXXII. Eibarko Hiria **Bolo Palma** Txapelketa. Untzaga **jubilatu etxeko abesbatza**k eta gitarra taldeak, bestalde, Coliseo antzokian kontzertu berezia eman zuten. Untzagan **Odisea** elkartearen eskutik simulazioa jokoen tailerrak egin zituzten. Txaltxa Zelaian martxa betean ibili ziren **Breaking Eibar** dantza txapelketan eta **Hortzmuga** taldearen kale-antzezkizunak bat baino gehiago harritu zuen. Eguna biribiltzeko, **The Vartools eta Shinova** taldeek kontzertua eman zuten. Eta domekan ere agenda betea izan genuen: Eibarko Hiria **txori kantarien** XIX. Txapelketa Arraten, Eibarko **Cielito Musika Banda**ren kontzertua Untzagan, **arku tiroa** Txaltxa Zelaian eta Untzagan Kubako doinuak eskaini zituen **"Septeto Naborí"** taldearen emanaldia.

# autuan

## 55 URTE BETETZEN DITUZTENEN BAZKARIA

**1963. urtean jaiotakoek bazkaria egingo dute urriaren 20an. Parte hartzera animatzen direnentzat izena emateko epea zabalik dago eta, horretarako, 80 euro sartu beharko dira Kutxabankeko kontu korrente honetan: ES10 2095-5035-00-9117915506. Bazkari egunean Eibarko Bizikleta Plazan elkartuko dira, 12:00etan, egunerako prestatu duten egitaraurekin hasteko: luntxa, talde-argazkia, bazkaria Arraten…**

## 1959-AN JAIOTAKOEN BAZKARIA

**Aurten 59 urte beteko dituztenak urriaren 27an elkartuko dira elkarrekin bazkaldu eta euren jai eguna ospatzeko. Bazkaria Eibarko Kasinoan izango da eta joan nahi duenak 70 euro sartu beharko ditu Banco Sabadelleko ES28 0081 4362 6200 0120 6823 kontu korronte zenbakian, izen-abizenak zehaztuta.**




- **Autokarabanen, karabanen eta furgoneten salmenta, alokairua eta konponketa**
- Denbora luzerako parking-a, garbiketa-gunea eta ur-kargalanak
- Ibilgailu mota guztiendako tailer-zerbitzua
- Karabanin eta kanpin osagai-denda
- Homologazioak, kanperizazioak...
- 4.000 m²-tik gorako instalazioak

INER CARAVAN
Itxaspe Auzoa, 3 – ITZIAR
943 05 08 03 – 664 68 58 97
www.inercaravan.eus




IBARKURUTZE
frutadenda
680 38 20 91

# LGTBI egunaren inguruko egitaraua antolatu dute

**Eibarko Gehitu elkarteak eta Berdintasun Zerbitzua-Andretxeak hainbat jarduera antolatu** dituzte elkarlanean, ekainaren 28an gogoratzen den LGTBI (Lesbianak, Gayak, Transexualak eta Transgeneroak, Bisexualak eta Intersexualak) egunaren harira. Programazioa ekainaren 16an hasi eta uztailaren 1ean amaituko da. Hasteko, eta Sanjuanekin bat eginda, "Sexu Bizi" prebentziorako gunea antolatu dute ekainaren 16, 23 eta 24rako, 17:00etatik 20:00etara Untzagan. Bertan, genero indarkeriari aurre egiteko bitartekoak eta sexualitateari buruzko informazioa eta materiala eskuratu ahal izango dira. Ekainaren 28an (eguenean) 13:00ean Untzagan bandera igo eta komunikatua irakurriko dute. Iluntzeko 20:00etan, berriz, Jon Gotzonek pregoia bota eta ordu erdi geroago, 20:30ean, musika emanaldia eskainiko du Paulantropia taldeak. Ekainaren 30ean (zapatuan), 22:00etatik aurrera saioa eskainiko dute Las Fellini taldekoek eta 23:30ean Boloñesa Vegana Djaren emanaldia hasiko da. Eta egitaraua agurtzeko, uztailak 1ean, 11:00etan, Jugger erakustaldia egingo dute Untzagan.






# Sukaldari eibartarrak egongo dira epaile lanetan Elgoibarko Pintxo Lehiaketan

**Elgoibarko Pintxo Lehiaketaren hamargarren ekitaldia antolatu du Elgoibarko Udalak ekainaren 27, 28 eta 29rako** eta, urteurrena ospatzeko, aurten estreinakoz sukaldaritza munduko bost aditurekin epaimahaia osatu dute eta epaimahaikideetako bi eibartarrak dira: Mireia Alonso gastronomoa eta sukaldaritza tradizionalean zein aprobetxamendu-sukaldaritzan aditua; 2017an Euskadiko Gastronomia Saria jaso zuen Aitor Buendia kazetaria eta Slow Food nazioarteko mugimenduko kidea. Eurekin batera Josema Azpeitia kazetari gastronomikoa eta Basque Culinary Centerreko irakasleak, Iñigo Kortabitarte sukaldaria eta Durangoko Kobika jatetxeko sortzaileak eta Belaustegi jatetxeko Josu Mugertza sukaldariak osatuko dute epaimahaia.

# Berbalagunek egun ederra pasatu zuten Bilbon, "Munduko arrozak" jaian

**Aurreko zapatuan ...eta kitto! Euskara Elkartearen Ongietorri Berbetan egitasmoan** parte hartzen duten hainbat lagun Bilbora joan ziren, iaz egin zuten bezala aurten ere San Frasntzisko auzoan ospatu den "Munduko arrozak" jaialdira. Argazkian ikusten duzuen taldea 11:00etan irten zen Eibartik eta eguerdian batetik bestera ibli ziren, jaian zegoen giroaz gozatzen. Bazkaldu ere han egin zuten, Safia taldekideak denentzat prestatu zuen janari goxoa. Egunerako plana amaitzeko, berriz, Doña Casilda parkera joan ziren, ahateak ikustera. Irteeran parte hartu zutenek egun ederra igaro zuten eta etxera pozarren bueltatu ziren, datorren urtean errepikatzeko irrikitan.


*Aurten ere "Munduko arrozak" jaialdian izan dira Eibarko Berbalagunak.*

MARCELA
MUGURUZA
ALBERDI

**Izar bat izan da gurean;
ilunean argi
egunean bide...
eta orain
joan badoanean
galdu edo itzali ordez
utzi digu
bihotza bete izarrez.**




DEPILATU
EDO EGUZKIA HARTU?
DAGOENEKO HORI EZ DA ARAZOA
no+vello
ORAIN
SUN&SAFE-REKIN
EGUZKIA EDO UVA IZPIAK
HARTU AHAL IZANGO DITUZU
SAIO BAKOITZETIK
48 ORDURA,
IZAN AURRETIK EDO ONDOREN
Ego-Gain, 20 (El Corte Inglés parean)
943 53 88 05 / 688 87 26 68
Astelehenetik ostiralera: 09:30/13:30 eta 15:00/20:00
Larunbatetan: 09:00/14:00


Urte borobila!
@aspepelota
ASPEpelota
@aspepelota
aspepelota.eus
SAN JUAN EGUNEKO JAIALDIA
Mendizabal III - Martija
VS
Elezkano II - Pedro Ruiz
ALTUNA III VS JAKA
Dario - Erostarbe
VS
Elordi - Jaunarena
ERRESERBAK
EGITEKO
Kontaktua (Olaya): 661 259 009



## Biharrian-ek "Jam Dibujo Session" saioa antolatu du 29rako

**Ubitxa kaleko Biharrian espazioan marrazkigintza eta musika batuko dituen** ekitaldi berezia egingo dute ekainaren 29an, barixakuan, 21:00etatik 23:30era: "Jam Dibujo Session" izenekoan Lorea Ciubak jardungo du musika zuzenean eskaintzen eta, marraztera animatzen direnentzat, berriz, Zuriñe eta Manu egongo dira modelo lanetan. Marrazteko asmoa duenak, bestalde, behar duen materiala (arkatzak eta koadernoa) etxetik eraman beharko ditu. Ekitaldirako sarrerak 7 euro balio du eta barruan edariak (1,20 euro) eta pintxoak (euro bat) egongo dira salgai.

## Gazteentzat robotika eta bideojoko tailer arrakastatsuak

**Aurtengo udan ere, robotika eta bideojoko sorkuntza tailerrak egingo dira Debabarreneko hainbat herritan,** "haur eta gazteen artean bokazio teknikoak sustatzeko eta zientzia, teknologia, ingeniaritza, artea eta matematikarekiko interesa pizteko asmoz". Antolatzaileek azaldutakoaren arabera, dagoeneko 8 eta 16 urte bitarteko 125 gaztek eman dute izena eta Eibarren, Deban, Mutrikun eta Soraluzen eskainitako toki guztiak bete egin dira. Hala ere, Ermuan eta Mallabian izena emateko aukera dago oraindik. Tailerrak ekaina eta iraila artean egingo dira (lehendabizikoak Eibarren eta Soraluzen, datorren astetik aurrera). Izen-ematea egiteko zein tailerrei buruzko informazioa eskuratzeko www.gazterobotika.eus atarian sartu daiteke. 20 orduko tailerrak dira eta 30 euro ordaindu behar da parte hartzeko.





*San Juan Bataiatzailearen figurak esanahi berezia hartuko du hurrengo egunotan.*

## Jose Agustin Larrañagak Miguel Gallastegiri buruzko liburua kaleratu du

**Eibarko idazleak Miguel Gallastegiri buruzko liburu berria aurkeztu zuen Zumaian,** pilotari handiak aurten 100 urte egin dituela aprobetxatuz. Liburuak 600 orrialde ditu eta bertan Gallastegik jokatutako 1.100 partiduak aipatzen dira, askoren kronikekin batera. Ez dira falta ezta berarekin jokatu zuten 110 pilotariren biografia eta argazkiak, jokatu zuen frontoietako historia eta argazkiak, beste ehun argazki inguru eta Miguelen inguruan sortutako beste hainbeste anekdota eta bitxitasunak. Gallastegik jokatutako partidei dagokionez, zerrenda osoa argitaratu du Larrañagak: buruz-buru, Miguel biren kontra, Miguel hiruren aurka, bikotea osatuz hiruren kontra eta baita aurrelari moduan jokatu zituenak ere.




*Liburu berriaren azala.*



## Sorbak bedeinkatuko dituzte Azitainen

**Gure herriko ohiturei eutsiko diete aurten ere Azitaingo parrokian** eta, urteroko martxan, San Juan egunean (ekainaren 24an), 11:00etako mezan sorbak bedeinkatuko dituzte. Azitaingo elizakoek gogora ekarri nahi dutenez, *"bedeinkatutako sorbak etxe zein baserrietako ateetan jartzen dira, hurrengo urteko San Juan bezperako suan erre arte. Udaren hasieran bedeinkatzen ditugun sorbek baserri eta naturarekin daukagun lotura gogoratzen digute eta fededunok eurengandik jasotzen dugunarengatik eskerrak eman eta zaintzeko konpromisoa hartzen dugu. Horregatik, Eibarko baserritar eta kaletar guztiak gonbidatu nahi ditugu San Juan eguneko sorba-bedeinkapenean parte hartzera".*

# Ondo pasa Sanjuanetan!!








Ahara
Untzaga Plaza, Eibar
943 043 782

Bista Eder, 10
Portalea
Jatetxea
"Eguneko Menua"
Afariak asteburuetan
(egunero enkarguz)
Pintxoak
Ogitartekoak
943 20 68 68
IGANDEETAN ITXITA









ESKARNE
JATETXEA
• eguerdiko menua
• menu bereziak
Arragueta 4 Tel. 943 12 16 50 20600 EIBAR




ETXEZ-ETXEKO ZERBITZU BERRIA
FOXTER-ek bere gastronomia bikaina etxera eramaten dizu, igande-ostegun bitartean, 20:00etatik 22:30era.
Animatu zaitez eta deitu!!!
razioak • sandwichak • hanburgesak • bokatak • mexikarrak
Plaza Barria, 6. Tel. 943 121 255




Toribio Etxebarria, 18 - 1.
CASINO ARTISTA EIBARRES
CASINO
ARTISTA
EIBARRES
Enkarguak hartzen dira
Telefonoa: 943 20 71 90

## “Grande cuore Ibai” dokumentala osorik ikus daiteke Youtuben



**Diagnostiko bariko gaixotasunak dituzten umeei buruzko dokumental laburra** egin du Jairo Berbel elgoibartarrak: "Grande cuore Ibai" izenburuko lanean AFESD elkarteko Ibai haurra da protagonista eta egileak, besteak beste, Ibairen bizitza eta umeak dauzkan ametsak islatu ditu. Ibai jaio eta gutxira konturatu ziren arazoren bat zuela eta, proba ugari egin eta emaitzen batek gaixotasunaren inguruko diagnostikoa argituko ote zuen urteetan itxaroten egon eta gero, orain dela gutxi jakin dute Ibairen gaixotasuna Allan Herndon Dudley sindromea izeneko mutazio genetikoa dela. Munduan 130 bat kaso ezagutzen dira bakarrik eta, hori dela eta, gaixotasunaren inguruan oso gutxi ikertu dute. Ia zortzi minutuko iraupena duen dokumentala aurreko astean estreinatu zuten eta sare sozialen bitartez ari dira zabaltzen.Youtuben lana osorik ikusteko aukera dago, https://youtu.be/eGqlQyVYR44 helbidean.



## Pagatxako emakumeek ikasturte amaierako bidaia egin dute

**Pagatxako emakume taldeko kideek amaitutzat eman dute ikasturtea** Brusela, Gante eta Brujasera egindako bidaiarekin. Ostiralean, ekainaren 15ean irten ziren Eibartik eta 3 egunetako irteera egin dute. Modu ezinhobea ikasturtea amaitzeko, eta merezitakoa, gainera, urtean zehar hainbeste lan egin eta gero.  Uda ostean, urrian berriro bueltan izango dira, indarberrituta,  “Emakumeon Istorioak”, zine-foruma, irakurketa eta idazketa tailerrak, ikastaroak eta hainbat eta hainbat ekitaldirekin.

## Haur-dantzaldiarekin agurtu zuen kurtsoa Gurasoak Berbetan egitasmoak

**Gurasoak Berbetan, ...eta kitto! Euskara Elkartearen mintzapraktika-programak** giro paregabean agurtu zuen ikasturtea aurreko astean, eguen arratsaldean Urkizuko parkean. Eguraldia lagun, haur zein helduek kantuan eta dantzan eman zuten arratsaldea, Xilipurdi taldeak eskaini zuen ikuskizunari esker.





25. urteurrena aniversario
TEKNIMAP
ENERGIA Y MEDIOAMBIENTE

## Mahaingurua Teknimapen 25. urteurrenean

Teknimap energia eta ingurumena aholkularitzak bere sorreraren 25. urteurrena ospatzeko mahaingurua antolatu du uztailaren 5erako, 12:00etan Eibarko Armagintzaren Museoan. Parte hartzeko gonbidatu dituztenak Alex Arriola SPRIko Zuzendari Nagusia, Iñaki Arriola Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua, Marisa Arriola BIC Gipuzkoako gerentea eta Miguel de los Toyos Eibarko alkatea dira.



## "Bilbobillies" taldearen kontzertua

**Legarreko Tarte kafetegiak Igande Musikatuak egitasmoari eutsiko dio** asteburu honetan ere. Oraingo honetan "Bilbobillies" taldekoek jardungo dute San Juan eguna zuzeneko musikarekin girotzen, eguerdian hasiko den emanaldian. Hirukote bilbotarrak rockabilly eta country estiloko kantuen bertsio klasikoak eskainiko ditu.




## San Juan DJ gauak

**Sanjuanak direla eta, Hirurok tabernakoek** astebururako musika saioak antolatu dituzte hainbat DJrekin: zapatuan Alex Tc aka Goxo eta Sergi aka Elektrik O egongo dira tabernan eta domekan, berriz, Huegon vs Uranga.



## Vonda Shepard Coliseoan

**Ekainaren 28an, 20:30ean, Vonda Shepard abeslariaren kontzertua hartuko du** Coliseo antzokiak. Abeslari estatubatuarrak pianoa, gitarra eta baxua jotzen ditu eta 11 album kaleratu ditu 1987tik hona. Sarrerak 25 euro balio du (17,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin) eta internet bidez (www.kutxabank.es) edo antzokiko leihatilan (astelehen eta domeketan, 17:30etik 19:30era) erosteko aukera dago.












# Ikusentzunezko Asterik eibartarrena

**Aurten ere uztaileko gauak girotzeko proiekzioak antolatu dituzte Arrate Kultur Elkartekoek.** Ikusentzunezkoen Astearen barruan hiru egunetan, uztailak 3, 4 eta 5ean izango dira saioak, 22:30ean San Andres elizako klaustroan. Betiko moduan, proiekzioetan erakutsiko dituzten lanak estilo ezberdinetakoak izango dira, agertuko diren tokiak ere batetik bestera aldatzen joango dira eta landutako gaietan ere aniztasuna da nagusi. Baina aurreko edizioekin alderatuz gero, aurtengo egitarauak badu du berezitasunik eta, gainera, horrek sortzen du lan guztien arteko lotura, ikusentzunezko guztiek duten komuneko ezaugarria: oraingoan, egitaraua osatzeko aukeratu dituzten lan guztiak eibartarrek egindakoak dira. Ikustera joateko arrazoi bat gehiago, beraz.

- UZTAILAK 3




PEDALÓ. 2016. Saiakera/ abentura dokumentala. [72 minutu]
Zuzendaria, argazkia, soinua, muntaia eta gidoia: Juan Palacios. Ekoizleak: Juan Palacios eta Patricia Sagués
**Sinopsia:** Zinemagile hasiberri bat hiru laguni segika dabil itsas-bidaia surrealista batean. Bigarren eskuko pedalontzi batean igota, Euskal Herriko kostatik 150kms egiteko asmoa dute. Pedalontzia, tamalez, ez da Kantauri itsasoko uretan ibiltzeko sortua, eta hasi bezain pronto, zoramen bihurtuko da bidaia: ezbeharra, parranda, biharamuna, xamana, hileta eta abar. Hiru "marinel" hauen espedizioa dokumentatzen doan heinean, zuzendaria bidaia paralelo batean murgilduko da.

- UZTAILAK 4
BERLIN. 2018. Diaporamak. [15 minutu]
BUKAERAKO LANAK. 2018 . Foto-erreportaiak. [10 minutu]
Egileak: Dani Astarloa (Eibar), Mikel Urionaguena (Eibar) eta David Tijero (Bilbo)



**Argazkigintza gustuko duten hiru lagun dira.** Mikelek eta Danik gaztetatik elkar ezagutzen dute. Davidekin Bilbon, Black-Kamera argazkigintza eskolan egin zuten topo. Hiruei gustatzen zaie Berlin eta bertan ibilitakoan ateratako argazki-bideoekin lan bana sortu dute. Horretaz gain, amaitu berri duten fotoerreportaia ikastaroko lanak aurkeztuko dizkigute.

ISLANDIA. 2015. Audiobisualak: Islandia (10:31), Krafla y Krysuvik (2:19), Jökulsárlón (2:59) eta Waterfalls (3:12)
Egilea: Juan Antonio Palacios
Argazkilaritza maisua dugun Juan Antonio Palacios eibartarrak 2015ean sortu zituen ikusentzunezko hauetan Islandiako paisaia eta ingurumena hurbilduko dizkigu.

- UZTAILAK 5
ZUK. 2017. Dokumentala. [80 minutu]
Zuzendaria: Unax Blanco. Ekoizlea: Asier García. Gidoia: Aitor Gametxo. Muntaia: Alex Argoitia. Argazkia: Gexan Mendizabal. Musika: Borja Rodriguez



**Sinopsia:** Krisi migratorio gisa izendatu duten hondamendiaren aurrean, hainbat boluntario-talde ekimen, egitasmo eta ekintza desberdinen baitan euren denbora ematen dabiltza, han-hemenka. CEAR-Euskadi, Zaporeak, Ongi Etorri Errefuxiatuak edo Salvamento Marítimo Humanitario euskal erakunde, elkarte edo plataformetako kideak eta, gehienbat, hauen lana eta esfortzua dira lau istorio paraleloz osatutako dokumental honetako protagonistak.



IES UNI BHI
EIBAR-ERMUA

AUKERA ZABALA!

HEZIKETA ESKAINTZA:
A ETA D EREDUAK

BATXILERGOAK
Zientziak eta Teknologia
Giza eta gizarte-zientziak
Aukerako irakasgaietan eskaintzarik zabalena

PROIEKTUAK ETA JARDUERAK
Nazioarteko ikasle-trukeak
UNI Encounter
Hizkuntzaren normalkuntza
Osasunarentzako programa
Urrats Bat
Agenda 21
Informatika ingelesez

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK:
- INFORMATIKA: Sistema Mikroinformatiko eta Sareak
- MARKETING ETA MERKATARITZA:
Merkataritza Iharduerak
- ADMINISTRAZIOA: Administrazio Kudeaketa

BATXILERGORAKO
MATRIKULA:
EKAINAREN 20-TIK
UZTAILAREN 6-RA ARTE

TEL. 943 20 84 44
www.uni.eus
idazkaritza@uni.eus
twitter@UniEibarErmua
www.facebook.com/iesunibhi

URKOTRONIK
VENDING
LEHIAKETA

San Blas-en
vending
makina bat?
Zergatik ez!




Jarri martxan irudimena eta irabazi vending makina bat:
www.urkotronik.com/lehiaketa

urkotronik 35 urte

## telefono jakingarriak

SOS deiak................................112
Pegora.......................................010
Udaletxea..................943 70 84 00
Portalea....................943 70 84 39
Udaltzaingoa.............943 20 15 25
Mankomunitatea.......943 70 07 99
Debegesa..................943 82 01 10
KIUB .........................943 20 38 43
Epaitegia ..................943 03 34 00
Iberdrola...................901 20 20 20
Naturgas...................902 12 34 56
DYA Larrialdiak.........943 46 46 22
Gurutze Gorria..........943 22 22 22
Mendaro osp.............943 03 28 00
Anbulategia..............943 03 25 00
Torrekua ...................943 03 26 50
Errepideak................902 11 20 88
Ertzaintza .................943 53 17 00
Eusko Tren................902 54 32 10
Lurraldebus .............900 30 03 40
Pesa..........................900 12 14 00
Taxiak ........................943 20 30 71
.....................................943 20 13 25
Alkohol.Anon............629 14 18 74
Al-Anon/Alateen.........650 26 59 63

## eguraldia (EUSKALMET.NET)




## hildakoak

- **Francisco Lueches Garcia.** 84 urte. 2018-VI-14.
- **Elisa Muguruza Eguren.** 95 urte. 2018-VI-15.
- **Luisa Gorrotxategi Basauri.** 93 urte. 2018-VI-15.
- **Marcela Muguruza Alberdi.** 88 urte. 2018-VI-16.
- **Cristobal Arrillaga Irastorza.** 87 urte. 2018-VI-17.
- **Mari Jose Martin Moral.** 66 urte. 2018-VI-18.
- **Maria Ostolaza Iruretagoiena.** 95 urte. 2018-VI-19.
- **Eduardo Barandiaran Cuartango.** 93 urte. 2018-VI-19.
- **Saturnino Martin Pineda.** 73 urte. 2018-VI-20.
- **Esther Plagaro Berriozabalgoitia.** 74 urte. 2018-VI-20.

## jaiotakoak

- **Florin Fabian Gheorghe.** 2018-V-30.
- **Uxue Tueros Korta.** 2018-VI-11.
- **Ane Garcia Santana.** 2018-VI-12.
- **Iker Iparragirre Mendikute.** 2018-VI-13.
- **Lina Boule Benslaiman.** 2018-VI-14.

## farmaziak

Barixakua 22
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
Zapatua 23
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
Domeka 24
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
Astelehena 25
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
Martitzena 26
EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)
Eguaztena 27
EGUNEZ **Mandiola** (San Agustin, 3)
Eguena 28
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
Barixakua 29
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
Zapatua 30
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
Domeka 1
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
Astelehena 2
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
Martitzena 3
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
Eguaztena 4
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
Eguena 5
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
Barixakua 6
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI -2018AN-
Lafuente (Sostoatarren, 10)

## SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 6 | 8 | | | 3 |
| 7 | | | 1 | | | | | |
| 9 | | 3 | | | 5 | 8 | | |
| | | 4 | | | 1 | | 6 | |
| 6 | 7 | | | | | | 3 | 8 |
| | 3 | | 5 | | | 9 | | |
| | | 9 | 6 | | | 7 | | 2 |
| | | | | | 3 | | | 5 |
| 8 | | | 2 | 1 | | | | |

### AURREKOAREN EMAITZA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 7 | 6 | 2 | 1 | 4 | 3 | 8 | 5 | 9 |
| 1 | 4 | 3 | 9 | 5 | 8 | 2 | 6 | 7 |
| 5 | 9 | 8 | 2 | 7 | 6 | 1 | 3 | 4 |
| 4 | 7 | 5 | 3 | 1 | 9 | 6 | 8 | 2 |
| 6 | 8 | 9 | 5 | 2 | 4 | 3 | 7 | 1 |
| 3 | 2 | 1 | 8 | 6 | 7 | 9 | 4 | 5 |
| 2 | 1 | 4 | 6 | 3 | 5 | 7 | 9 | 8 |
| 9 | 3 | 7 | 4 | 8 | 2 | 5 | 1 | 6 |
| 8 | 5 | 6 | 7 | 9 | 1 | 4 | 2 | 3 |

## Erakusketak

**Ekainaren 29ra arte:**
– “Larrañaga y Elorza, S.A. 100 urte” *(Armagintzaren Museoa)*

**Ekainaren 30era arte:**
– Avelina Rojasen txapel erakusketa eta tailerra *(Kokojaten -Calbeton, 8-)*
– Manuel Herreraren argazkiak *(Klub Deportiboa)*
– Jose Ignacio de Castroren argazkiak *(El Ambigú kafetegia)*
– J.R. Larroceare argazkiak *(Portalea jatetxea)*



**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**

## laztanak emoten...

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus


Zorionak, LORE Velazquez Casado, hillaren 26xan 3 urte beteko dozuz-eta. Eibar eta Debako famelixaren partez.


Zorionak, IRENÍ, printzesa, hillaren 18xan 4 urte egin zenduazen-eta. Aita, ama eta Ederrek asko maite zaittue.


Zorionak, ALAIN, hillaren 19xan 3 urte egin zenduazen-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.


Zorionak, AIORA, aurreko barixakuan 3 urte haundi egin zenduazelako! Famelixaren eta, batez be, Malenen partez!


Zorionak, JON, hillaren 27xan 2 urte beteko dozuzelako. Laztan bat famelixa guztiaren eta, batez be, zure lehengusiñen partez.


Zorionak, ALAINE, atzo 10 urte bete zenduazen-eta gure bizitzak alaitzen! Asko, asko maite zaittugu, bihotza!!


Zorionak, aitxitxa JUANITO (bixar urtiak egingo dozuzelako) eta LUKA (domekan, urtetxua). Musu bat etxeko danon eta, batez be, Danel, Aner eta Noaren partez.


Zorionak, MELANY, hillaren 15ian 8 urte bete zenduazelako. Aparta zara, ez dago zu bezalakorik!


Zorionak, LUKEN, domekan 6 urte egingo dozuzelako. Musu haundi bat etxekuen partez.


Zorionak, JUGATX, astelehenian 14 urte beteko dozuzelako. Musu haundi bat etxekuen partez.


Zorionak, ALAITZ, bixar 11 urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partetik.


Zorionak, MAIALEN!, ekaiñaren 28xan 8 urte beteko dozuz-eta!!! Musu haundi bat, neska haundi, danon partez.

# LEONOR ALIENDE TORRECILLA

*(1928-VII-3 / 2018-VI-12)*



*Leonor Alienderen familiak ESKERRAK eman nahi dizkizuegu jasotako maitasun eta laguntzarengatik*

*VESGA ALIENDE FAMILIA*



# FLORA ARANBERRI LASKURAIN



**4. urteurrena**: 2014-VI-21

*"Zure irribarria ta maittasuna beti dagoz gurekin"*

*ETXEKUAK*



# iragarkilaburrak


**1. ETXEBIZITZA**

1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa

**2. MOTORRA**

2.1. Salgai

**3. LOKALAK**

3.1. Salgai
3.2. Errentan

**4. LANA**

4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

**5. IRAKASKUNTZA**

5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

**6. DENETARIK**

6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak



943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus


i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.2. Errentan

– Logela alokagai. Merkea eta erroldatzeko aukerarekin. Tel. 632-271530.
– Pisua alokagai Ermuko erdialdean. Sukaldea, 2 logela, egongela, komuna eta despentsa. Tel. 669-209183.
– Logela hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 679-737762.
– Logela alokatuko nioke lana duen pertsona arduratsu bati. Sukaldea eta komuna erabiltzeko eskubidearekin. Whats-App 688-811214.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka. Tel. 630-566556.
– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 632-271530.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 677-233514.
– Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldez nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617-571210.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 635-587617.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 612-482203.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 632-835745.
– Emakume euskalduna eskaintzen da goizez garbiketak egiteko (10:00ak arte). Tel. 617-628137.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-502177.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-246361.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-384944.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 602-805869.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordutegi malgua. Esperientzia. Tel. 652-894575.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Baita gauez eta asteburuetan ere. Erreferentziak. Tel. 655-677035.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 603-634777.
– Magisteritza ikasten diharduen neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko ekainean eta uztailean. Tel. 688-802408.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta joskintza lanak egiteko. Tel. 604-352707.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak (baita gauez eta ospitalean ere) edo umeak zaintzeko. Gidatzeko karnetarekin. Tel. 689-571882.
– Gizonezkoa eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko edo zamalanak egiteko. Tel. 643-272992.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 643-272994.
– Gizonezkoa eskaintzen da zamalanak egiteko, altzariak muntatzeko eta ehungintzan lan egiteko. esperientzia. Tel. 643-272996.
– Mutila eskaintzen da kamarero, okin edo pizzero moduan lan egiteko. Tel. 643-272978.
– Neska eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagiusiak zaintzeko. Arratsaldez eta gauez. Tel. 658-418104.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 631-975260.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulua) eta etxeko lanak edo garbiketak egiteko. Tel. 602-055627.
– Gizona eskaintzen da igeltsero jarduteko, nagusiak zaintzeko eta baserriko lanak egiteko. Tel. 631-371332.
– Neska eskaintzen da garbiketak egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Esperientzia. Tel. 617-680071
– Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Interna. Tel. 643-096845.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez eta ospitalean ere. Tel. 632-841284.
– Neska eskaintzen da lan egiteko (pisuan edo ospitalean). Ordutegi malgua. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-657380.
– Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Interna. Tel. 666-808479.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordutegi malgua. Tel. 631-891709.
– Emakumea eskaintzen da arratsaldez nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. Tel. 646-821678.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeka zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 631-565350.
– Neska eskaintzen da pisuak, pegorak eta bulegoak garbitzeko. Tel. 698-406654. Marcia.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 612-571098.

### 4.2. Langile bila

– Monitoreak behar dira abentura jarduetarako (paintball). Tel. 660-450245. Ainhoa.
– Autonomoa behar da, furgonetarekin, ab uztuan paketeak banatzeko Eibar inguruan. Tel. 616-642631.
– Ileapaitnzailea behar da Eibarko ileapaindegi batean. Esperientzia eta estetika ezagupenak eskatzen dira. Tel. 943-567 232.
– Kamareroak behar dira asteburuetarako Arrateko Tiro Pichon-en. Bidali curriculuma:. Postakutxa 46. 20600. Eibar.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– Bateria klaseak ematen ditut. Tel. 669-649535.
– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Binilozko disko, single eta LP-ak erosten ditut. Tel. 688-624326.
– Bizikleta salgai 12-16 urte bitarteko gaztearentzako. Gutxi erabilita. 100 euro. Tel. 650-022371. Itziar.
– Ibilgailuaren atzeko atean bizikletak eta matrikulak eramatekoa salgai. Tel. 666-241667.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

– Agarponis (loroa) aurkitu dut Ubitxan. Deitu bulego ordutegian. Tel. 943-702131.




Dagoeneko zure mugak gainditu, handia den zerbaitekin bat egin eta intentsitatez bizi zaitezke. Eta, horrez gain, zelan egin nahi duzun aukeratu dezakezu Hyundairen SUV Gamak eskaintzen dizkizun aukeren artean. Puntakoena aukeratzekotan, KONA Berria aukeratuko duzu. Estiloak, konektibitateak eta abangoardiako diseinuak inspiratuko zaitue edonora joanda ere. TUCSON Hyundairekin jokabide, diseinu eta prestazioen artean konbinaketa biribila erakusten duen modeloaren arrakastarekin gozatuko duzu. Eta, azkenik, handiena, SANTA FE Hyundai: sofistikazioa, espazioa eta luxua azken detaileraino. **Zuk aukeratutakoa da.**

**OARSO CAR**
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO
www.oarsocar.com

**ELGOIBAR** Olaso Polig., 17 943 74 14 80

**OIARTZUN**
Lintzirin Poligonoa, 1
943 49 48 30

**BEASAIN**
Errepide Nazionala, 1
943 80 40 54

**IRUN**
Juan Thalamas, 43
943 63 97 69

HYUNDAI

5 AÑOS DE GARANTÍA SIN LÍMITE DE KM

**TUCSON Hyundai Gama: $CO_2$ emisioak (gr/km): 119-175. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6 - 7,5. SANTA FE Hyundai Gama: $CO_2$ emisioak (gr/km): 149-174. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,7 - 6,6. KONA Hyundai Gama: $CO_2$ emisioak (gr/km): 117-153. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,2 - 6,7.**

PSP gomendagarria Penintsulan eta Balearretan TUCSON 1.6 GDI 96,4 kW/131CV 4X2 BLUED ESSENCE (17.900€), SANTA FE 2.0 CRDI 150 CV (110,4kW) 4X2 ESSENCE 7 jarleku (26.715€) eta KONA 1.0 TGDI 120CV (88,3kW) 4X2 ESSENCE (13.990€) autoentzat. BEZ, garraioa, matrikulazio-zerga, sustapeneko deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta mantenimendu-eskaintza barne. Hyundai-ra Aldatu Plana aplikatu daiteke erabilitako auto baten truke, 6 hilabeterekin, Hyundai berri bat erosten duen bezeroaren titulartasunpean. Eskaintza hau aplikagarria da Cinking Solución Flexible produktuarekin finantzatzen duten bezero partikularrentzat, Banco Cetelem S.A.U.-ren bitartez, 13.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin TUCSON-en kasuan, 16.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin SANTA FE-ren kasuan, eta 12.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin KONA-ren kasuan. Finantziazioa finantza-erakundeak aztertu eta onartu beharko du. Eskaintza 2018/06/30era arte da baliozkoa. Ikusten diren modeloak: TUCSON Style, SANTA FE Style eta KONA Style. Mantenimendua ibilgailuaren finantziazioari lotua. * Hyundai Motor España S.L.U-k bere bezeroei eskaintzen dien km mugarik gabeko 5 urteko berme komertziala Hyundai-ren sare ofizialak saldutako Hyundai ibilgailuei soilik aplikatuko zaie, zerbitzu-pasaportearen baldintzen arabera. Kontsultatu itzazu eskaintza, mantenimendu eta bermearen baldintzak Hyundai kontzesionarioen sarean edo www.hyundai.es web-orrian.




*Betidanik esku onetan!*

Isasi, 20

943 20 17 33
650 71 03 36
629 48 15 92
eibarbus@eibarbus.com
www.eibarbus.com






20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure irribarrea zaintzen.



Zure irribarre onena geure laborategian diseinatzen dugu.

R.P.S. 123/17

bista eder
clinica dental - hortz klinika

**Deitu** | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar
www.bistaeder.es